



MIGRAZIO POLITIKA

AZKEN 13 URTEETAN

**23.000tik gora hildako
Europara bidean**



- **Prekarietatea** Gazteen %65ek ez du inolako lan kontraturik
- **Ainhua Malexetxebarria**, tratu txarren biktima «Kalean burua gora joango naiz, berak jaitsiko du burua»
- **Hizkuntzen biziraupena** Interneten ez daudenak hil-hurren
- **Gernika Lemoizen** Mikel Laboa eta flamenkoa batzen dituen ikus-entzutekoa estreinatzeaz
- **Bakartxo Ruiz**, Bildu «PSN barrutik saiatu dira egoera aldatzen, eta une honetan, asko PSN kanpotik aldatzen saiatuko dira»
- **Larrun** Mugimendu anarkistaren mendea?

Euskal Herritik Palestinaz mintzo



BILADI HADI blog berria

www.argia.com/blogak/biladi-hadi

“BILADI HADI. Hamaika begirada Palestinari Euskal Herritik”

argazki liburu eta musika CDaren abesti, argazki eta testu berriak astelehen, asteazken eta ostiraletan

Musikariak, kazetariak, argazkilariak,
bertsolariak, zinemagileak, ikasleak, pailazoak,
herri mugimenduko kideak...





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitara ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa:
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara:
Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander
Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner.
Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza
teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite
Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego
Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.
Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña.
Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa:
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com.
Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com.
Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal
Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182
euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko apirilaren 20a, 2.412. zenbakia

ASTEKO GAIA

MIGRAZIO POLITIKA Atea zabaltzeko ordua. MIKEL GARCIA / 4

PERTSONAIA

AINHOA MALAXETXEBARRIA UNZETABARRENETXEA:

«Berriz jaio naiz, pozik naiz, indartsu». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Kimutx, elkarlanean loratutako kimua.

LIDE HERNANDO / 14

EKOSISTEMAREN KONTSERBAZIOA Artikutzako nagusi

muturluzea. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

ERABAKITZE ESKUBIDEA, KOSOVO ETA KRIMEA ASIER BLAS / 18

EZ DAKIT ZER NAIZEN ETA EZ NAGO HARRO J. I. ANSORENA / 20

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN «Mutiko». KATTALIN MINER / 20

BERTSO BERRIAK Ama. IMANOL LAZKANO / 21

ZIRTA Udaberrian abiatu nintzen. IRATXE ESNAOLA / 22

ERDIKO KAIERA

GERNIKA LEMOIZEN Mikel Laboaren esperientzia

esperientzia iturri. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 23

JUANCAR BILBAO: «Urtetan etorri ez direnak joan ez balira bezala
sentitzen dira itzultzerakoan, Muga tabernan». I. BARANDIARAN / 24

HERRIETAKO BERTSO LIBURUAK Garai guztietako ahotsak,
gaurko irakurleen eskura. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA, MIKEL ASURMENDI / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Maitatzea ez da erraza Palestinan. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 31

IHESI MONTORI (ZUBEROA) Izena aldatuz izana ahaztu.

ALLANDE SOKARROS / 32

OSASUNA J. AGIRRE / 36 **LANDAREAK** J. ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

BAKARTXO RUIZ: «Nik ez nuke ulertuko EAE independente bat
Nafarroarik gabe». XABIER LETONA / 39

GAZTEAK ETA PREKARIETATEA Egiturazko arazo baten datu
gordinak. URKO APAOLAZA AVILA / 42

ANDRÁS KORNAIREN IKERLANA Heriotza zigorra interneten
erabiltzen ez diren hizkuntzentzat. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 44

EUSKARA ALBISTEAK, EKONOMIAREN TALAIA / 47

NET HURBIL *Catastrophe bonds*, hondamendiei sosak ateratzeko.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

OHARRA

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Maiatzaren 4an itzuliko gara.

Atea zabaltzeko ordua

Hainbat diskurtso eta legeren jomuga etorkinak bihurtu diren garaiotan, Europar Batasunean dugun migrazio politika aztertu dugu, 13 urtean 23.000 hildako baino gehiago eragin dituen politika bidegabea. Etortzea lortu dutenek modu sotilagoan jasaten dituzten trabak eta bizi dituzten pozak ere kontatu dizkigu Raquel Salles de Campos brasildarrak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

MARTXO BUKAERAN argitaratu berri dute Europara iritsi nahian hil diren lagunen orain arteko datu-baserik zehatzena: 2000 eta 2013 urteen artean, 23.000 baino gehiago izan dira, The Migrants Files artxiboaren arabera. Eta hala ere, inon erregistratuta ez dauden biktimak asko eta asko kanpoan geratu direla onartu dute egileek. Gehienak itsasoan itota hil dira (Mediterraneoan bereziki), gosez eta egarritz basamortuan akitu direnak ere ugari dira, beste batzuk erail egin dituzte, edo hotzez hil dira, beren buruaz beste egin dute, mina-zelaiak zapaldu dituzte... Pasa den otsailan bertan, gogoan dugunez, gutxienez hamalau pertsona hil ziren, Maroko eta Ceuta arteko mugan igeri ari zirela; auzitan dago guardia zibilaren jarduna.

Europar Batasunaren migrazio politika dago guztia- ren oinarrian. Gotorleku izan nahi du Europak, eta horretarako mugak kanpora ateratzea du abiapuntu: nondik dator migrazioa? Bada, hara eramango ditugu mugak, batez ere Afrikarekiko eta Asiaren zati batekiko, hasiera-hasieratik oztopatzeke Europara etortzea. Ezin bada jatorrian saihestu, bidean jartzen dira trabak —aurrerago mintzatuko gara Frontex eta EuroSur agentziez—, baita helmugan ere —ezagunak dira Grezia eta Bulgariako hormak edo Ceuta eta Melillako hesiak, orain xafla ebakitzailerik eta guzti—, eta azken buruan, akordioak sinatzen dira jatorriko herrialdeekin, sartzea lortu dutenak berehala kanporatzeko.

Giza eskubideen aurkako politika? “Europak ezin du politika bat indarrean ipini eta politika horren ondorioak kontuan ez hartu. Erantzukizun zuzena du heriotza horietan, baina begiak ixten dituzte bai Bruselan bai estatu askotan —dio Agustin Unzueta migrazioan aditu eta SOS Arrazakeriako

kideak—. Lampedusan 387 lagun hil ziren eta Durao Barrosok bertaratu eta malko batzuk bota zituen, baina politika ez da aldatu. Edo okerrago: mugak are zorrotzago mantentzeko, Frontex agentziari orain EuroSur agentzia gehitu diote”.

Bilbon bizi den brasildarra da Raquel Salles de Campos, eta baietz uste du, giza eskubideen aurkako erasoak dela europar politika, lege baztertzailerik bultzatzen dituen heinean. “Adibidez, lesbiana bati asiloa ukatu berri diote, sexu joera ez delako argudio gisa onartzen; haurdun zegoen emakume bati ere asilo eskaera atzera bota zioten, haurdun egoteagatik (zer eta gehien behar duenari!); prestazio sozialak ere, eskubide bat izan arren, alde batera uzten ditu batzuk... Eta gauza txikiak

ere bada, detaileak, betikoei aukerak eta eskubideak urratzen dizkien eguneroko biolentzia sinbolikoa”. *Transitoa*, ordea, (berak ez du migrazio hitza erabiltzen) eskubidea izateaz gain gelditu ezin den prozesu bat dela argi du Salles de Camposek, mugak muga: “Betitik egin dugun zerbait da,

eta immigrazioa bezalako etiketak jartzen hasi ginen arren, fenomeno bera da: zenbat mugitu gara munduan zehar, deitu migrazio, deitu turismo? Zenbaten guraso, aitona- amona eta arbasoak jaio ziren beste lekuren batean? Behar oso anitzak asetzeko, munduan zehar mugitu nahi duen eta munduari aberastasun handia ematen dion jende asko dago, baina beti pentsatzen dugu hartu egin nahi dutela. Ez dugu arreta jartzen ematen duten horretan, egiten dituzten ekarpenetan”.

Raquel Salles de Campos brasildarra Bilbon bizi da egun (irudian, bere etxeko atarian): “Munduko lurralde jakin batzuk esplotatzen jarraitzen badugu, herritarrek horietatik irteten nahiko dute”.

Gotorleku izan nahi du Europak. Nondik dator migrazioa? Bada, hara eramango ditugu mugak, eta ezin bada jatorrian saihestu, bidean jartzen dira trabak





Frontex agentzia sortzea, estatuek euren erantzukizuna saihesteko modua dela uste du hainbatek. Agentzia horrek hainbat salaketa ditu bere gain, aldamenetik barkuak pasa eta laguntza behar zutenei jaramonik ez egitea egotzita.

Bisen sistema baztertzaila eta txartel urdina

Europarrok ez dugu oztopo berezirik ez Europan barna ez munduan ibiltzeko –gatazkan dauden zenbait herrialdetara joateko ez bada–, aski ditugu nortasun agiria eta pasaportea. Ostera, dakigunez denek ez dute zorte bera: herrialde jakinetako biztanleei bisa eskatzen zaie Europan lur hartzeko. Bisen politika Bruselan erabakitzen da eta irizpide argiak ditu: kontinenteko estatu guztietan (hots, kontinenteko herritar guztiei) bisa eskatzen zaion munduko leku bakarra Afrika da. “Mundu osoko mapa hartzen badugu, Afrika osoa eta asiar gehienak (Txina, Vietnam...) dira bisa behar dutenak, eta esaterako Amerikan aldiz, Kanadatik Txileraino laster Ekueador eta Bolivian baino ez da beharrezkoa izango baldintza hori. Bazterketarako sistema bat da bisa, pobreenak kanpoan uzteko sistema”, azaldu du Unzurrunzagak.

Egonaldi bisa lortzeko (gehienez 90 egun igarotzeko), nahikoa diru eta ondasun izatea eskatzen da. Erresidentzia bisa eskuratze-ko, lehenik erresidentzia baimena behar da eta erresidentzia baimena beti dago lan baimenari lotuta: bai sartzeko, baita ondoren geratzeko ere (legezko lan-kontratua mantentzea da gakoa). Errotze soziala (bertan urteak pasata egoera legezko bihurtzea) eta familia berrelektzea (Europan lanean ari denaren senitartekoak batzeko sortua) ere migratu duenak kontuan hartu beharreko formulak dira. “Funtsa zera da: Europa-

ra etorri nahi baduzu, lanera etorri behar duzu”. Lehen, herrialdeek *Betetzen zailak diren jardunak* motako zerrendak argitaratzen zituzten hiru hilero, lan merkatuan bete barik geratu diren eta kanpokoren batek nahiko balu eskatu ahalko lituzkeen lanpostuekin. 2008tik, baina, Espainiako Estatuan bederen zeron dago zerrenda eta inor ez da bide horretatik sartzen.

Hori bai, urte horretan bertan, Europako zuzentarau baten bidez txartel urdina jarri zuten martxan: esku-lan kualifikatua (goimailako prestakuntza duena) erakartzeko, txartel horren bitartez erraztasunak ematen dizkiete estatuek atzeritar “onei” (erresidentzia eta lan baimenak lortzeko, Europan barna mugitzeko...).

Kontrola zorrozteko, Frontex eta EuroSur

Kanpo-mugetan kontrola indartzeko, Frontex agentzia sortu zuen EBk 2004an. Itsasontzi, helikoptero, sentsore eta abarrez hornituta, migratzaileen bidaia eragozteko du eginkizun eta diru publiko finantzatzen da (2013an, 85 milioi euro inguruko aurrekontua izan zuen). Batekin gutxi ez eta bigarren agentzia bat martxan jartzea onartu du Batasunak: EuroSur, hegoaldeko estatuentzat (224 milioi euroko aurrekontua izango du sei urterako).

“Zerbitzua” azpikontratatzeko eta ondorioz estatuek eskuak garbitzeko eta erantzukizunak saihesteko modua dela uste du hainbatek. Itsasoan noraezean dauden pertsonak soros- teko aproposak direla saldu duen agintaririk

“Afrika osoa eta asiar gehienak (Txina, Vietnam...) dira etortzeko bisa behar dutenak. Pobreenak kanpoan uzteko sistema da bisa”

Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeria

«Sinetsi nuen immigrante nintzela, eta ezberdin izatea nire arazoa zela»

33 URTE ETA 6 URTEKO SEMEA ditu Raquel Salles de Camposek. Brasi-
lia hirian jaio zen, AEBetara joan
zen 17 urterekin, eta handik Italia-
ra, unibertsitate ikasketak egitera.
“Italian bizitako azken boladan,
atzerritar izatetik immigrante sen-
titzera pasa nintzen, baztertua,
kasik errudun, tratua ezberdina
izaten hasi zelako. 8 hilabeteko
semearekin ikaratuta atera nintzen
Italiatik, etiketaz josia, sinetsaraz-
ten utzi nielako, sinetsi nuen,
denek hori esaten zutelako eta
legeak berak hori adierazten zuela-
ko, immigrante nintzela, ezberdi-
na, eta ezberdin izatea nire arazoa
zela. Bilbora iritsi eta berdin, traba
legal eta burokratiko pila batek
egin zidaten ongietorria (haurra
eskolatzeko, diploma baliozkotze-
ko, osasun publikoa erabili ahal
izateko...). Pentsa, senar italiarrak
etorri beharra zeukan baieztatzea
harekin ezkondata nengoela, esku-
bide jakin batzuk aitortu ahal iza-
teko! Ikusten duzu arauak ez dau-
dela eginak integratzeko (eta hitz
hori ere ez zait gehiegi gustatzen),
sarrera blokeatzeko baizik. Atea
irekitzen dizute, solidario direla
saltzen dute, eta gero prozesu luze
baten barruan sartzen zaituzte, ea

zenbat eroriko garen. Biktima zara
modu bikoitzean: biktima zure
jatorriko herrialdean, egoera kon-
plexuetatik ihesi ateratzen den
jende asko dagoelako, biolentzia
handiko egoeretatik, eta hona eto-
rri eta biolentzia pairatzen jarrai-
tzen duzu, modu sotilagoan, baina
biolentzia”.

Erakundeak zerbitzatzeko
daude, erantzunak eta soluzioak
eskaintzeko, eta horietako langi-
leek borondate ona izatea, galdua
dagoenari benetan laguntzea fun-
tsezkoa deritzo. Eraso beharrean
tresnak eskaintzen dizkizutenean,
dena aldatzen delako. Horren adi-
bide diren kasu asko eta asko eza-
gutu ditu Munduko Emakumeak
elkartean, eta beretzat ere salba-
zioa izan da elkarte. “Emakumeei
baliabideak, ikasketak, zerbi-
tzuak... eskaintzeko tailerrak egi-
ten ditugu eta udal eta ikastetxee-
tara joaten gara, migrazioaz eta
generoaz hitz egitera. Lan politiko
eta feminista egiten dugu, anizta-
sunaren barruan eta aniztasun
hori errespetatuz. Guretzat ez da
arazoa ezberdin izatea”.

Errefuxiatuak Laguntzeko
Espainiako Batzordeak Bilbon
duen egoitzan lanean dihardu,

gerra errefuxiatuei, asilo politikoa
eskatzen dutenei, arazoren bat
duten edo lan bila datozen atzerri-
tarrei... dokumentazio eta abarre-
kin lagunduz. “Batez ere, entzun
egiten ditugu, borondatea hor has-
ten da, nora joanik ez duen jende
ugari baitago, eta gogorra da kalean
seme-alabarekin lo egitera behartua
dagoela esaten dizun emakumea
entzutea, ez dituztelako aterpe-
txean onartu”. Datuen arabera,
emakume eta gizonen migrazio flu-
xua antzekoa dela kontatu digu,
baina bulegotik pasatzen diren
%75 gizonetakoak direla, emaku-
meentzat migratzea are zailagoa
delako, eta baldintza okerragoetan
egin behar izaten dute: “Gizonak
euren artean elkartu eta dokumen-
tuak lortzen dituzte; emakumeak,
sarri, umeei datoz, pertsonen
trafiko ilegalean kateatuta, prostitu-
zioari lotuta, baldintza negargarrie-
tan etxeetan lan egitera...”.

Salles de Camposek sei urte
daramatza Bilbon, eta migrazioak
gorputzean (fisikoki nahiz emo-
zionalki) uzten dizuten arrastoei
buruzko proiektua garatzen ari da,
beste hainbatekin batera. “Euskal
Herriari utzi nahi diodan ekarpen-
txoa izango da, joan aurretik”.

bada, baina hori ez dela euren lana erantzun
dute agentzietako beharginek eta, are okerra-
go, Frontexek hainbat salaketa ditu bere gain,
aldamenetik barkuak pasa eta laguntza behar
zuen jendeari jaramonik ez egitea leporatuta.

Mugan hartuz gero, Marokorekin adibidez
tratua du Espainiak, eta Marokotik abiatu dena
hara bueltatzen dute zuzenean. Baina erasoak
eraso, muga gainditzea lortuz gero, zer? Iden-
tifikatu egiten dituzte lehenik, eta behin-behi-
neko zentroan dauden bitartean espedienteak
irekitzen zaie, kanporatzeko prozedura admi-
nistratiboa martxan jarritz. Sarri, luzatu egiten
da prozesu hau (enbaxaden arteko hartu-ema-
nengatik, helegitea jartzeko aukera dagoela-
ko...) eta Ceutan eta Melillan esaterako behin-
behineko zentroan gehienez 45 egunez egon
daitezkeenez, asko libre uzten dituzte. Hainba-
tek penintsulara edo beste estaturen batera
jarraituko dute bidaia, bizkar gaineko zama

ezin kendurik: egoera ez legezkotan eta kanpo-
ratze prozedura bat irekita dutela.

Diskurtso probokatzaileak eta arau gogorragoak

Lehenengo urratsa, krisiaren aitzakian mezu
populista ustelekin iritzi publikoan xenofobia
eta arrazakeria sustatzea izan ohi da —eta ez
gara eskuin-muturraz bakarrik ari—: etorkinek
lana eta diru-laguntzak kentzen dizkigutela,
gure gizarte eta osasun zerbitzuak aprobetxa-
tzera datozela, gaizkileak direla, segurtasun
faltaren eragile, ez dutela integratu nahi...
Horiek guztiak eta gehiago behin eta berriz
ezeztatu dituzte datuek —argia.com-eko Jen-
darten blogean, *Krisiak areagotutako topikoak
desegiten* artikuluan jaso genuenez—.

Bigarren urratsa, beldurra zabaltzea:
Manuel Valls Frantziako lehen ministro izen-
datu berria Ekialdeko Europako ijitoak “eska-

MIGRAZIO POLITIKA


le eta gaizkile” direla baieztatzen eta Herve Barrié epailea ijituek “Frantzia arpilatu nahi” dutela esaten entzutea baino ez dago. Edo, Unzurrunzagak gogoratu digun moduan, *El País* egunkariak dio 30.000 afrikar daudela hesiaren alde batetik bestera jauzi noiz egingo zain, eta Espainiako Barne Ministerioak berriz, 90.000 direla. “Betikoa da, 2005ean ere, Giovanni Sartori soziologoak, Asturiasko Printzea saria jasotzearekin bat bota zuen hiru milioi afrikar zeudela saltatzeko gertu; non daude hiru milioi horiek?”. Errealitateak, beste behin, ezetz diosku, eta Hego Euskal Herrian adibidez, 2012an gehiago izan dira joan diren afrikarrak (6.650) etorri direnak baino (2.110). Adituek, bien bitartean, ozen hitz egin dute: joera demografikoa ikusiz bakarrik, gure ekonomiak kanpotik jendea etortzea behar du, etorkizunean biziraun nahi badu.

Eta hirugarren urratsa, ahulena zigortzea, immigranteen aurkako politika gogortzea: etorrera galarazteko kontrolak sendotuz (Euro-Sur); behin barruan, kanporatze prozedurak erraztuz (aipaturiko espedienteen sistema aldatu dezakete Espainian, Errumania eta Bulgariako erromaniak erbesteratzen tematu dira Frantzian...); bertan geratzeko atzerritarren legea gogortuz (gizartean zenbateraino dauden integratuta neurtzeko bideak ireki nahi ditu legeak, integrazio irizpide horiek baldintzatu dezaten bertan segitzeko baimena); eta euren egoera okertuz (Espainiako Gobernuak osasun txartelak gabe utzi ditu etorkinak). Langabeziari eta etsipenari aurre egiteko, errudunak behar dira. “Nor bait eraso behar da, eta nor erasoko duzu? Baliabide gutxien dituen, edo ez dituen, baliabide horietara iritsi ez dadin”, dio Salles de Camposek.

Zein da soluzioa?

Ez dirudi erraza munduan politika eredu-garriak aurkitzea. Gakoa abiapuntua aldatzea

Irudian, Europara bidean hildakoak gorritz. Herrialde ugaritako kazetari, elkarte, GKE, behatoki eta abarren datu bilketaren emaitza da The Migrants Files artxiboa.



Europar mugak kendu dira estatuen artean, eta ez da ezer pasa, gogoratu du Unzurrunzagak

dela uste du Unzurrunzagak: oztopoa jartzeak, “ezin du etorri” esateak, ez luke oinarria izan behar, migrazioa eta birmigrazioa erraztea baizik, eta estatuen batek kontrakoa eginez gero, zergatia justifikatu beharko luke. “Merkantziak eta kapitala alde batetik bestera mugitzen badira, pertsonak ere eskubidea behar lukete mugitzeko. Baina pertsonen migrazioa beti dago estatu hartzaileen menpe: zenbat, nondik, nola... etorri daitezkeen, besteak diren arren beharra dutenak”. Gainera, “jendeak, sistemak sistema, erabakitzen du nora joan eta zer egin (jendea ez da tuntuna, krisian dagoen herrialdean lana aurkitzen ez badu, beste batera egingo du bidea), eta ikusi da jendea sartzeko eta bere herrialdera bueltatzeko erraztasunak ematen badizkiozu, gehienak ez direla geratzen. Aldiz, hesia jartzen baduzu, sartzeko hainbeste kostatu zaionez, bertan geratzeko da, bizimodu kaskarra eramanda ere”. Europar mugak kendu dira estatuen artean, eta ez da ezer pasa; “Europa eta Afrika oso ezberdinak direla eta ezinezkoa dela? Beharbada, baina Europako esperientzia hor da, eta nahiz eta espainiarrek jakin Frantziako soldadak askoz altuagoak direla (gutxieneko soldata 1.160 eurokoa da Frantziako Estatuan eta 645 eurokoa Espainiakoan), espainiarrak ez dira Frantziara joaten bizitzera, edo Britainia Handira”.

Zimendua, jendearen beharrei eta eskubideei erantzun dieten legeak izan beharko luketela gaineratu du Raquel Salles de Camposek. Norbanakook dugun erantzukizuna hartu du hizpide: “Askok borondatez kontra emigratzen badu, zer ari naiz ni egiten, nire mikromunduan, bestea etxetik ateratzera behartzen duena? Zer eta non ari naiz kontsumitzen? Non eta zein baldintzatan egindako kafe eta txokolatea? Nire mikrotik nola eragin dezaket makroan? Munduko lurralde jakin batzuk esplotatzen jarraitzen badugu (guk eta gure gobernuen erabakiek), herritarrek horietatik irteten nahiko dute. Kultura eta etnia bati dena kentzen badiogu, desplazamendua ari gara bultzatzen... Baloreen krisia aspalditik dugu errotuta, baina besteei espaziorik ez uzteko adina kontsumitu al dugu dagoeneko? Balbula etengabe erregulatzea dagokigu (batzuei kentzea besteei emateko), oreka mantentzea eta elkarbanatzea zentzudunagoa baita, baina ez dugu ikusi nahi”.



AINHOA MALAXETXEBARRIA UNZETABARRENETXEA

«Berriz jaio naiz, pozik naiz, indartsu»

Azaroa zen. Euskadi Irratiko Faktoria saioan emakume bat Maite Artolari genero indarkeria kontari. Ainhoa zen. Abian ginen...

| MIEL A ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco



Elkarrizketa hark ekarri nau zuregana. Bateko indarkeria, besteko biktima, hau eta hura...

Ni ez naiz biktima sentitzen. Indarkeria bizi egiten da, baina gaindi liteke. Beste aldean bizitza dago. Ni berriz jaio nintzen psikoterapia egin eta gero, gertatu zitzaidana ulertu eta gero. Pertsona berria naiz orain. Oso prozesu zaila da. Gizartea dago atzean, eta hezkuntza... Nik ez daukat esaterik matxista nintzela, emakumea ezin liteke matxista izan, baina

rolak onartzen nituen. Nire barruan zeuden. Eta nire barruan ez ezik, beste emakume askoren barruan. Gu, izan ere, besteok zaintzeko bizi gara. Beti besteengan pentsatzen. Nik ez nuen inoiz nigan pentsatzen, ez nintzen neure buruaz arduratzen. Behin esan ere egin nuen. Galdetu zidaten: "Zuretzat zein dira pertsonarik garrantzitsuenak bizitza honetan?". Eta egundoko zerrenda osatu nuen. Denak ezarri nituen: aita, ama...



“Bizitza dago, bat bakarra, gurea da, eta bizi beharra daukagu, minutu bat bada ere!”.

NORTASUN AGIRIA

Ainhoa Malaxetxebarria Unzetabarrenetxea (Bilbo, 1971), gorliztarra. Arkitektoa. Genero indarkeriaren biktima. Lanean da Haize Berria elkartearekin, sortzaileetakoa da. Politikan ere sartu da, jendearekin poz pixka bat emateko asmotan. Gortzeko Udaleko zinegotzi da EH-Bilduren aldetik, sabindarrak nagusi diren eskualdean. Hirigintzan laguntzen du, eta gizarte zerbitzuetan. Eta, lehen ez bezala, bere burua maite du. Indarra du, eta bizigira.

Denak, neu izan ezik. Gerora ikasi dut hori, eta beste gauza asko.

Ez zinen zerrendan azaltzen...

Eta gainera, pertsona toxiko bat ezagutu nuen orduan. Hasieran dena zen polit. Nire bizitza osoa kontatu nion pertsona horri: nire beldurrak eta gainerako guztia. Horrela, nitaz baliatzeko erreminta guztiak eman nizkion. Hortik abiatu zen dena. Ni harengan pentsatzen ari nintzen beti: “Zer egingo dut,

bera ez haserretzeko?”. Horixe zegoen nire barruan, bera ez haserretzea. Baina berdin zion nik zer egiten nuen, haserretu behar bazen haserretuko zen, nik ezker edo eskuin egin berdin zen.

Balientea iruditu zintzaizkidan irratian hizketan entzun zintudanean.

Elkarrizketa bat baino gehiago egin nuen: lehenengo, Gasteizen [iazko azaroan, bortizkeriaren osteko jabekuntzari buruzko jardunaldietan]. Gero etorri ziren irratia eta telebista... Eta beldurrez nengoen. Orain ez, orain lasai nago. Hor dugu oraindik motxila, baina lasai nago. Hala ere, pentsatzen dut: “Eta berriro hasten bada?”, ze deiak eta deiak izaten ditut, telefono finkoa, sakelakoa, finkoa, sakelakoa, finkoa, sakelakoa... Tortura hutsa da! Beldurrez nengoen, baina psikologo batek esan zidan: “Ainhoa, zenbat eta jende gehiagok jakin, orduan eta babestuago zaude”. Eta berak ere ni baliente nagoela ikusten badu, beldur handiagoa du! Izkinan

geldirik geratzen banaiz, ni zapaltzera etorriko da. Indartsu nagoela ikusten badu, ez dator. Ez dute potrorik! Oilobustiak halakoak! Ikusiko banu, aurrera egingo nuke, prest nago. Ez dakit nola erreakzionatuko lukeen berak...

Genero indarkeriaz ari gara...

Gizarte matxistaren ondorio dela uste dut nik. Nire iritzia da. Behin esan nuen —eta ia jan ninduten—, baina uste dut eurak ere, erasotzaileak, gizarte matxistaren biktima direla.

Galanta bota duzu, horratik!

Biktima hitza ere aztertu egin beharko genuke, biktima zer den zehazki ulertzeko. Horretaz pentsatzen hasiz gero, oso urrun joan gitezke. Uste dut biktima eta erasotzailea, biok garena gizarte matxistaren biktima. Ez dut erasotzailea zurituko, pentsatu ere ez! Bizitza honetan ez dago aitzakiarik ondokoa jo delako, edo abusatu duelako.

Nola hasten da indarkeria hori?

Hasteko, nik ez nekien gertatzen ari zitzaidana indarkeria kasua zenik. Telebistan behin eta berriz entzuten duzu “genero indarkeria”, halakok beste halako hil duela... baina ez duzu zeure buruarekin lotzen. Besteri gertatzen zaio beti. Nirea, berriz, psikologikoa izan zen gehienbat, lehenengo kolpearekin hautsi nuen-eta. Aurretik bultzadak-eta izan ziren, baina ez nituen genero indarkeriarekin erlazionatzen. Esan dut, hasieran dena oso ondo, ni guztiz maiteminduta, esaten nuena entzuten zidan... Zoragarri ibili ginen. Oso limurtzaileak dira, losintxariak, saltzaile onak... Ni, berriz, barru aldera ez nintzen hain ausarta. Esan izan zidaten: “Baina, Ainhoa, zu hain indartsu eta, nola gertatu zaizu?”. Kanporantz, bai, ausarta, baina barru aldera ez. Beragaz lotu nintzen eta hasi ginenean dena oso ondo, gero kontuak: “Zergatik jantzi zara horrela? Hori piura! Aldatu!”. Behin, Logroñora joan ginen motorra hartuta. Ilea, halaxe, eta txandala jantzita. Heldu ginen eta lehenengo gauza esan zuena: “Nire emaztegaia da, baina janzten denean ederragoa da”. Eta nik eskertu berak momentu hartan hori esatea! Hortik atera kontuak! Hurrena, beste bat: “Behin ere ez zaude zure lagunekin”. Baina ez nekien nora joan ere! Nire familiarekin gelditzen baginen, beti haserre. Etxera bueltan, betikoa: “Ikusten nola portatu naizen? Kabroi hutsa naizela esan ez dezazu”. Eskerrak eman behar nik! Gauza txikitxoak beti. Ezkondu eta hilabetera, ez zuen nirekin lo egin nahi izan. Enbarazu egiten nion!

Negarrez, pozetan

“Beti ibili naiz bizitzan maitasunaren bila, hau eta hura egiten nituen besteren maitasuna jasotzeko, bueltan jasotzeko. Neure buruarekiko hutsunea betetzeko nahia zen. Orain, bete dut hutsune hori, egunero saiatzen naiz betetzen, eta inoiz baino maitasun gehiago etortzen zait kanpotik. Ikaragarria da! Duela aste batzuk laguntza behar izan nuen gauza bat egiteko, eta hura laguntza pila jaso nuena batetik eta bestetik! Zenbat jende, nire ondoan. Negar egin nuen astebetez, baina pozez!”.

Gauza txiki asko, esan duzu.

Eta gero eta gehiago. Jendartean geundela, inoiz ez zidan begiratzen. Esaten nuenak inoiz ez zuen inportantziarik, ez zen kontuan hartzeko modukoa. Inoiz ez. Horrela, nik lehenetik neuzkan beldurrak handituz joan ziren. Berak bazekien non jo! Ni beti azpian. Ni arkitektoa naiz, bera etxegilea. Obrak ziren lekura eramane eta eraikuntzaren berri ematen zidan. Ikasketak bukatu berria nintzen, eta eskertu egiten nion niri azalpenak ematea. Bestalde, “lehenago ere badakit nik hori”, pentsatzen nuen, baina berak, bezeroaren aurrean ginela, tuntuat hartzen ninduen, eta nik horretan utzi egiten nion. Gauza txikitxoak dira, esan dizut, baina gero eta gehiago ziren, gero eta gehiago, gero eta gehiago...

Noiz arte?

Egun batean, etxera etorri zen, haserre. Hori ez zen nobedadea, beti zegoen-eta haserre! Egun hartan, orde, zartakoa eman zidan. Ez bultzakada ez beste: zartakoa. Abuztua zen, eta Bilboko jaiak. Pijama jantzita nengoen, eta pijamatan irten nintzen etxetik. Ertzain etxera joan nintzen, laguntza eske. “Jo egin nau!”. Batzuetan bere onetik irteten zen. Segurtasun lanak ere eginak zituen, eta arma bat ere bazuen etxean... Ertzainetara joan nintzen, laguntza eske, pijamatan! Eta oso txarto.

Oso txarto.

Enpatia, zero! Beldurrez joan nintzen, eta beldurrez nengoen. Salaketa jartzen banuen, banekien bera gehiago haserretuko zela. “Orain arte horrela portatu bada nirekin, pentsatu nola portatuko den, zer egingo duen, salaketa jartzen badut”. Horixe pentsatu nuen. Askotan gertatzen da: tratatu txarrak salatuz gero, txarragoak dira tratatuak gero. Areagotu egiten dira.

Ertzainetan ginen...

Urduri baino urduriago nengoen. Zer egin behar nuen ez nekiela joan nintzen, laguntza eske. Mutilaren anaiari hots egin nion. Beraren erantzuna: “Egin ezazu egin behar duzuna, Ainhoa”. Laguntzarik ez. Urtebete neraman ezkondata, etxekoei ere ez nien esan nahi. Lotsa ematen zidan, inguruko gizarteak zer esango ote zuen. Ez nuela ezkontza bizi-modua zuzen eramaten jakin edo ahal dakit nik zer... Ertzainek esan zidaten etxera joango zirela nirekin: “Zelan dagoen ikusiko dugu”. “Zelan dagoen? Ondo baino hobeto! Zorua ni izango naiz han. Ni, urduri, histeriko, eta bera lasai! Horixe ikusiko duzue! Baina nirekin etxera etortzen bazarete, nirekin geratuko zarete lotan!”. Horixe esan nien...

Ertzainetan, gizonezkoak ziren denak, ala emakumezkoak bazen?

Gizonezkoak denak. Abokatu bategaz nahi nuen berba egin. Jakin gura nuen. Salaketa jartzen banuen, haserretuko zela banekien. Etxea bion izenean zegoen. Aparte, nik neure estudioa nuen, eta bera nire estudioan zegoen, nirekin batera, bere eraikuntza enpresa aurrera ateratzen. Salaketa jarritz gero, nora joan behar nuen nik? Zer egin behar dut, nora joan ninteke? Abokatua nahi nuen, jakin gura nuen. “Salaketa jarri behar duzu”, ertzainek behin eta berriz. “Ezetz, ez dudala beste barik salaketa jarriko. Zer gertatuko zait salaketa jartzen badut?”. Ezer ez. Azkenean –esan dut, gaua zen, eta Bilboko jaiak–, ahizpari deitzea pentsatu nuen. “Hortxe ibiliko da parrandan!”. Eta ahizpa etorri zitzaidan, lagun batzuek. Eta ahizparen etxera joan nintzen gau hartan. Oraindik entzun behar izaten dut Bilbora parrandan joan nintzela ni gau hartan. “Badakit, ikusi egin zaituzte-eta”. Hori entzun behar, gainera. Baina horiek beraren kontuak dira, niri bost!

Hor bukatu zen harremana?

Nik “kitto!” esan nuen. Bera, orduan, deika hasi zen. Telefonoa jo eta jo eta jo egun osoan, azkenean telefonoa hartu, nik. Esan zidan: “Zer ari zara, ordea? Burutik zaude, ala? Etorri etxera! Zer zorakeria egiten ari zara?”. Kontua da nik ez nuela salaketarik jarri, ez nuelako garbi ikusten. Ez nintzen salaketa jartzen ausartu, baina horrelakoetan ertzainak berak jarri ohi du salaketa, norberak kontatutakoa oinarri hartuta. Egun batera, edo bira, Ertzaintzatik deitu zidaten, esanez hara joan behar nuela, epaiketa nuela. Nik banekien, deitu zidalako, berak jarri zidala salaketa niri, eta epaiketa hura horregatik zela pentsatzen nuen, nik ez nuen-eta salaketarik jarri. Ez nekien ertzainen kontu hori, beraiek salaketa jarri eta epaiketa azkarra egiten dutela... Ezer ez daki guk! Nire kontrako salaketa jarri zuen, esanez burutik eginda nengoela, hilabete batzuk lehenago tumore bat izan nuela buruan, operatu egin nindutela, zer edo zer ukitu zidatela buruan, eta zoratuta nengoela. Eta beldurrez zegoela, neure burua lesionatuko ote nuen. Oraindik gordeta daukat salaketa. Esan zidan: “Salaketa jarri behar izan dut, neure burua defendatzeko. Zuk salaketa jarri nahi baduzu, defendatzeko modurik onena dut zure kontrako salaketa jartzea”. Uste dut oraindik barrez ari direla ertzainak.

Epaiaketa azkarra...

Ertzainen deiari erantzun eta joan nintzen epaiketara. Salaketa irakurri nuen. Zer zen hura, ordea! Emozionalki hondoa jota nen-

Erasotzaile anonimoa

“Biktimaren izena bai eta erasotzailearena, aldiz, zergatik ez den azaltzen? Ez dakit, bada. Beharbada gu

ausartagoak garelako? Nik ez dut haren izena esango. Nik dakidanez, berarentzat ere badago laguntza psikologikoa. Ertzainetara joan nintzenean jakin nuen, niretzat ez ezik, berarentzat ere bazela. Baina hori beraren kontua da, beraren bizitza, berak jakingo du zer egiten duen... Beraren izena ertzainen zerrendan egon zen. Baina bere lehengusu baten bidez, genero indarkeriaren kontrako GKE bateko kidea!, izena zerrenda hartatik ateratzea lortu zuen. Kasu hartan ere, neu nintzen gaiztoa, zerrenda hartan sartu nuelako!”.

goen. Bakarrik joan nintzen epaiketara, ez dakit zergatik, baina bakarrik joan nintzen. Uste nuen nire kontrako epaiketa zela. Galdetza hasi zitzaidan neska bat. “Baina zu nor zara, zergatik erantzun behar dizut”, nik. Eta berak: “Zure abokatua naiz”. “Hara, bestea!”, nik. “Zer nahi duzu?”. “Zer nahi dudan, horrek ni bakean uztea, horixe nahi dut”. Akordioa lortu genuen. Mutila, kanpoan, orroka, bere onetik irtenda: “Irteten kanpora! Zurekin hitz egin nahi dut!”. Ez dakit zer gertatu zen, ni ere ez nengoen-eta neure seneari. Ez zegoen frogarik. Tira, banituen grabazioak: batean zioen nire familia osoa akabatuko zuela, eta, lehenengo, nire loba jaioberria...

...

Horrela, estudioa uztea lortu nuen arte.

Gaitz erdi!

Baina neuk egon behar izan nuen haren zain. Hantxe ni, berak bere traste guztiak atera arte. Bera, berriz, etxean geratu zen. Nire izenean zegoen erosi genuenean, eta hipoteka ere bai, jakina. Hala ere, etxean geratu zen hilabetez. Ni kanpoan. Gero, Barrikara joan zen bizitzera, berton, errentan. Eta Ainhoa –ni–, hilabete horretan, poltsan labana zuela ibili zen. Beldurrez nengoen! Galduta nenbilen. Lan egin behar nuen, autonomia naiz –niretzat laguntzarik ez dago–, dena ordaindu behar dut. Abokatu bila hasi nintzen. Hasieran, hemendik hara, handik hona ibili nintzen. “Zoaz gizarte laguntzara, zoaz halako zerbitzura”. Ez nekien nora zuzendu.

Zuretzat laguntzarik ez.

Ez, bada. Autonomia, seme-alabarik ez... Psikologoaren laguntza izan nuen, behintzat, eta orduantxe jaio nintzen berriz, duela bost urte, psikologoarekin amaitu nuenean. Gutxi gorabehera, urtebete egin nuen psikologoarekin. Abokatuak, berriz, ez dakit zenbat pasatuko nituen. Hoge? Eta joaten nintzen aldiro, 60 euro!

Orain badakizu zer gertatu zitzaizun, zeure burua ulertzeko gai zara, jabetzen zara...

Orain bai. Orduko “salatu, salatu, salatu”... Kontuz, kasu bakoitza diferentea da. Baina laguntza eskatu, bai. Ez isildu, bai. Joan norbaitegana eta kontatu. Egin berba norbaitegarekin. Lehenengo, beharrezkoa da prozesu emozionala konpontzea. Dibortzio guztiak dira borroka. Pentsatu borroka hori egin behar duzula, emozionalki txarto egonda! Ezin da!

Psikologoaren laguntza...

... eta familiarena. Familiak oso ondo hartu ninduen. Hor dago oraindik. Nire ondoan.

AZKEN HITZA

Barkatu

“Bizitza honetan zer edo zer ondo egiten badugu, egin behar zen moduan egin dugula pentsatzen du jendeak. Ez dago saririk. Gauzak txarto egiten baditugu, atzetik datozkigu makilarekin: ‘Txarto egin duzu, txarto egin duzu’. Ondokoak txarto egiten badu, barkatzen diogu, baina norberak egiten badu, ez diogu geure buruari barkatzen. Prozesu pertsonala da, baina emakume askotan, ia denetan, gertatzen dela ikusten dut. Eta gizonetan ere bai”.

Noiz bukatzen da hau dena?

Nik hor dut motxila ekonomikoa oraindino, eta uste dut betiko edukiko dudala. Baina horixe baino ez daukat. Inoiz baino zoriontsuagoa naiz, nahiz eta arazoak dauzkadan. Batzuetan behea jotzen dut, honetaz eta hartaz oroitzen naiz, hilero ordaindu behar dut hainbat diru –beraren maileguari dagozkionak, baina berak ordaintzen ez duenez, nik ordaindu behar, abala nik jarri nioneta–, baina amorrua atera dut barrutik. Atera dut. Ez zidan ezertarako balio. Ni neure lekuan nago, neure buruarengan pentsatzen dut. Zerrenda egiten hasi eta lehenengo nire burua dago. Lasai egiten dut lo. Neure buruarekin bakean nago. Egunero saiatzen naiz ikasten, pozik bizitzen... Berriz jaio naiz, pozik naiz, indartsu, eta tipoa aurretik badator –korapiloa egingo zait eztarrian–, baina burua gora joango naiz. Berak jaitsiko du burua! Zulotik irten liteke. Pausoa eman behar da. Ez da erraza, baina lor liteke.

Besteri laguntzeko ere bazaude orain Haize Berria elkartean.

Eusko Jaurlaritzak indarkeria jasandako hainbat emakume bildu zituenen hasi ginen. Hutsuneak zein ziren zehazten hasi ginen, eta



hutsune horiek betetzeko asmotan Haize Berria elkartea sortu genuen: genero indarkeria jasan duen emakumeari pausoak ematen laguntzeko, gidaritza eskaintzeko, berba egin gura duenari entzuteko. Enpatia oso garrantzitsua da, eta besarkada. Besarkadaren indarra oso handia da. Tira, uste dut mundu guztiak behar duela besarkada, baina ez dugu esaten, eta, gero, larrutik ordaintzen dugu. Berba egin gura duenak, hor gaitu. Ondoren, ikusiko dugu nora jo, zer egin. Hilero antolatzen ditugu tailerrak. Aitzakia baino ez da, gura baduzu: geure buruontzat denbora hartzea da. Baina beti badugu zer edo zer: umea gimnasiara eraman, edo ez dakit nora. Ezin geuretzat denborarik hartu. Emakumeok denontzat dugu denbora, geure buruontzat izan ezik! ■



JEXUX ARTZE Kultur Elkarteak antolatuta...

Maiatzak **3**, larunbata,
22:00tan

Usurbil. Sutegiko auditorioan

“Nola belztu behar zuria” Joxan Artzeren liburuetan oinarritutako poesia eta musika emanaldiaren estreinaldia.

Bide Ertzean eta **Oier Guillan&Asier Sarasola**

Maiatzeko ekitaldiak



Sarrerak: Lizardin **8€** aldez aurretik, **10€** egun berean (takilan)

AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Kimutx, elkarlanean loratutako kimua

Kimutx kultur elkarte, hasierako helburua hori izan gabe, auzolan proiektu bihurtu den egitasmo interesgarriaren adibidea dugu. Etxe giroan hasi ziren bi ama, eta sortze prozesuan partaideak eta profesionaltasuna gehitzen joan zitzaizkion. Eraitza: haurrentzako ipuinak, bertsoak, kantak, txotxongiloak, euskal mitologia eta beste abar luze bat biltzen dituen materiala.

| LIDE HERNANDO |



“PROIEKTUAREN SORRERA kezka batek hasi zuen: gure sentsibiltatea nonbait islatu nahi genuen gure haurren heziketan”, dio Nora Barrosok, Kimutxen sortzaileetako batek. Euren ahots eta tresnak erabiliz, etxe giroan geldituko zen zerbait egin nahi zuten Jurdana Otxoak eta berak, seme-alabei eskaini nahiko lieketena sortuz, jada ezagutzen zituzten proiektuetatik jasotakoa haienarekin aberastuz.

Musika eta kanten hitzak sortzen hasteko, gaian adituak ziren gertuko jendearekin hitz egin zuten: Oreka Tx-ko Mikel Ugarterekin, Odei Barroso bertsolariarekin edota Arkaitz Miner musikariarekin, kasu. “Lehenengo

kontaktuetan jada jakin genuen proiektuak gauza polit asko sortzeko aukera ematen zuela. Horrela, bada, pixkanaka ipuinak sortzen hasi ginen, eta proiektuan jende gehiago saretzen joan zen”. Besteak beste, lotarako kantu baten letra egiteko, Xalbador II.a bertsolariarengana jo zuten Urepelera.

Ezagunetatik harago zabaltzen hasi zirenean, Eider Eibar marrazkigilearekin jarri ziren harremanetan, eta egitasmoarekin bat egin zuen honek. Ipuinak egiteaz arduratu zen Nahia Alkortak, euskal mitologia uztartu nahi izan zuen egitasmoan, eta zortzi izaki mitologiko aukeratu zituen, Eibarrek irudika-

tu zituenak: iratxoa (Kimutx), sorgina (Nora), lamia (Jurdana), jentila (Laiene), Martin Txiki, Aker, Tartalo eta Mari edo Amalur. “Lehenengo zazpiek haur itxura dute, ikasleak dira, eta Oiartzungo Kataxulo kobara doaz Amalurrekin elkartzera. Bertan, astebetetz, Amalurrekin izaki bakoitzaren istorioa azaltzeko eskatuko die, eta haurrak euren jatorria azaltzen hasiko zaizkio, kantuez lagunduta”, azaldu du Barrosok. Istorioak, gainera, heziketa ulertzeko modu bat jartzen du mahai gainean: haurrak ikaskuntza prozesuan txertatzen ditu, haiei hitza emanez, eta irakasleek entzuten ikasi behar dute.

Musikariz, letragilez, bertsolariz, idazlez, kudeatzailez, teknikariz, marrazkigilez eta diseinatzailez aberastutako taldeak musu-truk egin du lan lau urtez, eta 2012 bukaerarako jada amaituta zuten material guztia: hamar bertso hamaika kantatan (bertso bati bi doinu jarri zizkioten), zazpi ipuin, pertsonaien marrazkiak eta Euskal Herri osoko 40 laguntik gorako baso ederra. “Kimutxen parte den pertsona bakoitzak bere borondatea, sentsibiltatea eta pasioa jarri ditu proiektuan, eta horrek auzolan familia bat sortzea eragin du”.

Material guztia, eskuragarri

“Egindako lana formatu eskuragarrian jartzea erabaki genuen, guretzat opari bezala gordezeko. Gure poltsikotik dirua jarritz, 500 aleko tirada ateratu genuen”, azaldu du Barrosok. Ale bakoitza 18 eurotan dago eskuragarri, jarritako dirua berreskuratzeko eta proiektuari hauspoa emateko asmoz. Editatutako materiala egitasmoaren webgunearen bitartez eta zenbait liburutandatan lortu daiteke, Errenterian (Mirentxu liburutenda), Durangon (Hitz), Zarautzen (Garoa), Beasainen (TTiklik Elkargunea) eta Tuteran (El Cole). Eskaren arrakasta ikusita, bigarren tirada bat egin behar izan dute.

Egindako lan guztia biltzen du ale bakoitzak: ipuinak paper formatuan, barrutik margotzeko eta txotxongiloak egiteko irudi mozgarriak, kantuen CD-a, eta CD didaktikoa. Azken horretan, ipuina jaso dute PDF formatuan, baita kanten partitura eta akordeak, letrak eta karaoke moduan aritzeko ahotsik gabeko kantak. Liburuak saldu ahal izateko, Kultur Elkartea sortu behar izan dute. Creative Commons lizentziapean egin dute, horrela edozeinek har dezakeelako materiala eta zerbait berria egin, baldin eta Kimutx elkarte aipatzen badu, herrian egindako lana herriari uztea baita xedea. Webgunean ere doan eskura daiteke materiala: www.kimutx.eu.



Eider Eibarrek irudikatu ditu Nahia Alkortak istorioetarako aukeratutako zortzi izaki mitologikoak.

Haurrek gozatzea, emanaldien helburua

Hainbat lekutatik deitu dituzte euren proiektuaren aurkezpena egiteko. Emanaldiak bereziki etxeko txikiei, ingurukoei eta orokorrean haurren mundua maite duen orori zuzenduta daude. Kimutx egitasmoan eraikitako mundu magikoa ezagutzeko aukera dago emanaldio-

tan: Euskal Herriko pertsonaia mitologikoen ezaugarriak, zuzeneko musika, irudien magia, ipuin kontaketak... Haurrak ere kantuan aritzen dira. Orain artekoek harrera ona izan dute, eta hurrengo emanaldia EHZ jaialdian izango da, ekainaren 29an.

Zertan datza Kimutx Kultur Elkartek lortu duen arrakasta? Batetik, handinahikeriarik gabe denboraren poderioz mamitu eta hauspotu den proiektua izan da, “etxe giroan hasi eta herri giroan amaitu dena”, Barrosoren hitzetan. Bestetik, arlo ezberdinetako aditu edota zaleek pasioz eta sentsibiltatez jorratu duten auzolana dago atzean. Hurrenganako errespetua, beraien gozamina eta bestelako hezkuntza bat planteatzen duen egitasmoa ere bada: materialak, haurrek bakarrik eta helduen konpainian gozatzeko aukera ematen du, euren irudimena indartuz eta sortuntza sustatuz. Baina, batez ere, euskal kulturak duen aberastasuna pasioz transmititu nahi du Kimutxek, mitologiaren, hizkuntzaren, musikaren, bertsoen eta dantzaren bidez. ■



Artikutzako nagusi muturluzea

Ez gara Donostiaz ari... Artikutzaren lurjabeaz alegia; muturluze edo ur-sator izenez ezagutzen den animalia urtar txikia da bertako nagusia. Inguruko erreketako uraren kalitate onaren seinale, bera da ekosistemaren termometrorik zehatzena. Espezie preziatu bezain delikatu, oso baldintza jakinak behar ditu bizitzeko, eta hori erraztu asmoz Donostiako Udalak eta Nafarroako Gobernuak kudeaketa plana jarri dute martxan.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

ARTIKUTZAKO UR EKOSISTEMA hobetzeko, aipatu bi erakundeek zenbait puntu zehaztu berri dituzte. 1919tik Donostiaren esku dagoen lur eremu honetan Euskal Herriko altxor natural garrantzitsuenetakoa dago, baina kontserbazio lanak beharrezkoak dira horrela izaten jarrai dezan. Ingurua aberatsa da zentzu askotan, eta ura du berezitasun nagusi; hortaz, puntu horri heldu nahi izan diote.

Añarbeko urtegia ondoan duela, lau erreka gurutzatzen dira Artikutzan, eta horien ur-emia ahalik eta naturalena izatea dute helburu, ekosistemak bere lekua berreskura dezan. 2014rako prestatutako lanen artean, gaur geldirik dauden hiru presa kentzeko asmoa du Donostiako Udalak, bere garaian ur horniketarako Herriko Etxeak berak eraikiak. Halaber, kanal bat ere badago Artikutzan, zeinak ura kentzen baitio ibaiari, udan uretako habitatari kalte handiak eraginez. Ibaia non desbideratzen den oraindik justu ez badakite ere, hori detektatu eta kanala kenduz bide naturalera itzularaztea ere badute helburu. Donostiak lurjabe bezala dituen eskumenen barruan sartzen dira ekintza hauek, beti ere Goizuetako Udalarekin harremana mantenduz, bera baita herri bezala administrazio konpetentea, eta aurtengo urterako 23.000 euroko aurrekontua prestatu dute lan horietarako.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren esku geratzen diren gestio administratiboak daude. Ingurumenerako eta kontserbaziorako kudeaketa planak bideratzeko eskumena,

esaterako, berak du. Artikutzaren kasuan, gainera, betebeharra dute horrelako egitasmoa prestatzea, 2004an Europak Garrantzizko Leku izendatu baitzuen zonaldea, Natura 2000 sarearen baitan. Proiektu horretan sartu eta zazpi urtera arteko epea ematen dute kudeaketa plana martxan jaritzeko. 2011rako prest behar zuen, beraz. Donostiako azken udal gobernuak, Ingurumen zinegotzi Asier Jaka duela, kudeaketaren nondik norakoak galdegin zizkion Nafarroako Gobernuari. Eta tartean azpikontratutako enpresa bat zegoela eta baso ordenazio batean oinarritutako kudeaketa plana ikusirik, egitasmoa birbideratzeko asmoa aurkeztu zioten.

Aurreko udal gobernuak eduki dituzte lehenagotik gestio modeloak, baina ez kontserbazioari eta ingurumenari zuzenduak. Udal gobernuak pauso bat harago joan nahi izan du, dagoen natur aberastasuna babestuz.


Artikutzaren kasua berezia da, gainera, normalean lurjabea baita horrelako planak mugatzen dituen (ingurumena zaintzeak esan nahi baitu bestelako ekintzarik, eraikuntzarik adibidez, ez egitea). Oraingoan baina, Donostiako Udalak bera izan da plana eskatu eta bultzatu duena.

Akordioa lortzeko, Donostiako Udalak “sedukzio” plan bat prestatu beharra zeukan, Nafarroako Gobernu bide horretara eramanez nahi bazuen. Hori horrela, ingurumen ikerketan aditua den DESMA enpresak EHUREkin elkarlanean Artikutzako ur ekosistemaren azterketa burutu zuen hilabete batzuen buel-

Erreken ur-emia ahalik eta naturalena izan dadin eta ekosistemak bere lekua berreskura dezan, 2014rako prestatutako lanen artean hiru presa eta kanala kentzea dute helburu



Artikutzako ur ekosistemaren parte garrantzitsuenetakoa da muturluzea, bera bizi den bitartean sistema hidrikoa ondo mantentzen den seinale baita.



tan, eta Nafarroako Gobernuari bideratu zioten. Kudeaketa plana Natura 2000 sarearen irizpideen arabera egin zen. Azterketa iragan urtarrilean aurkeztu zuten donostiarrek, eta Artikutzarekin harremana duten herri eta enpresak gonbidatu zituzten (hala nola Goizueta, Oiartzun eta Errenteriako udalak, Gipuzkoako Diputazioa eta Añarbeko Urak), baita Nafarroako Gobernu ere. Horrela bada, ingurumenaren kontserbaziorako plan berria diseinatzen hasi dira zonaldean eskumena duten bi erakundeak.

Proposamena prest izanda, aipatutako udal, erakunde eta enpresekin parte-hartze prozesu bati hasiera emango diote, puntu-puntu plana guztien artean definitu ondoren, foru dekretu bidez onartu ahal izateko. Behin egitasmoa onartuta, Artikutza Kontserbazio Bereziko Eremu izatera pasako da.

Baina itxaron, plan guzti horren barruan non kokatzen da muturluze txikia? Bada *Galemys pyrenaicus*-arentzat kontserbazio plan berezia egiteko eskatu dio Gipuzkoako hiri-buruak gobernu nafarrari. Oso espezie berezia da, eta Artikutzako ur ekosistemaren

parte garrantzitsuenetakoa, bera bizi den bitartean sistema hidrikoa ondo mantentzen den seinale baita. Beraz, muturluzeagatik Artikutza interesgune izendatzeko eskatu da, Gipuzkoak hegoaldeko zuhaitz igela espeziearekin egin bezala.

Donostiako Udalak, bestalde, ikerketa eta ezagutza lantzeko asmoa dauka, diotenez, badagoelako zer aurkitu eta ikertu oraindik ere. Horretarako, bada, 20.000 euroko diru partida prestatu dute udazkenean ikerketa beka bat ateratzeko. Unibertsitatearen laguntzarekin zabalduko dute diru-laguntza, eta lizentziatutako edo lizentziatzeaz dauden gazteei bideratuta egongo da. Horrez gain, beste lan lerro bat ere irekiko dute Artikutzarekin harremana duten erakundeekin, ingurumenaren kontserbaziora bidean hitzarmenak sinatzeko. ■





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Erabakitze eskubidea, Kosovo eta Krimea

ASKOK IDATZI DUTE Krimeako sezesio eta ondoren etorritako errusiar anexioaren aurka. Bereziki deseroso zeuden erabakitze eskubidearen alde agertzen zirenak. Elkarlotutako bi argudio nagusi aurkeztu dizkigute. Lehenengoa: errusiar ejertzitoaren presentzia aktiboa eta erreferendumen exekuzio azkarra salatzen zituzten. Egia da, Krimeako erreferenduma plebiszitarioa izan da, hau da, alde aurretik Krimeako Parlamentuak hartutako erabaki bat berresteko funtzioa baino ez zuen. Baina ez digutena kontatu da baldintza antzekoetan egin direla sezesio erreferendum gehienak azkeneko hamarkadetan. Halere, XX. eta XXI. mendeko historian ohikoena aldebakarreko independentzia aldarrikapena izan da (parlamentu ez demokratikoek ere bai).

Bigarren argudioa: Kosovo kasu oso desberdina da. Kosovoren alboan, Krimeako prozesua oso garbia izan da. Askok ahaztu nahi izan dute Kosovo militarki Mendebaldeak hartutako lurraldea dela NBERen babesik gabeko gerra operazio baten ondorioz. Ordutik 15 urtetako okupazio militarra dago indarrean. Hau gutxi balitz, Kosovon garbiketa etniko ia perfektua egin da serbiarrak eta gainontzeko gutxiengoak ia desagerraraziz.

Kosovo kasu oso desberdina da. Kosovoren alboan, Krimeako prozesua oso garbia izan da. Askok ahaztu nahi izan dute Kosovo militarki Mendebaldeak hartutako lurralde bat dela NBERen babesik gabeko gerra operazio baten ondorioz

Kosovon ez zuten erreferendumik egin, baina jakin badakigu bere populazioaren gehiengo sezesioaren alde zegoela. Hori bai, 2010ean, Gallup enpresak eginiko inkestaren arabera, Kosovoko albaniarren %81ek Albania handiaren aldeko hautua egingo luke (Albania izan nahi dute). Mendebaldeko potentziek erabaki zuten Kosovo *independente* izatea, praktikan irredentismo kasua den arren (Ekialdeko

Alemaniko kasua bezala, berezitasuna aurkitu eta justifikatzen da indarra baduzu, Errusiak egin duen bezala). Kosovo mendebaldeko potentziek kontrolatzen duten lur eremua da, bere autonomia eskasa da, independentzia bakarrik sumatu dezakete albanieraren nagusigo sozial eta administratiboagatik. Bestela, Kosovoko banderak baino gehiago ikusi daitezke albaniarrek, AEBetakoak, NATOkoak eta EBkoak. Euskal Herrian egiten den moduan eraikin publikoen aurreko hagetan jartzen dituzte.

Bestalde, Krimeako populazioak aspal-ditik nahi zuen Errusia izan berriro. 1993an bere burujabetasuna aldarrikatu eta erreferenduma egin zuen sezesio eta anexioaren aldeko gehiengo garbiekin, baina Jeltsin oso ahula zenez, akordio bat sinatu zuen autonomiaren truke. Halere, hurrengo urteetan Kiev eta Krimea arteko gatazkak hamarnaka konta daitezke. Tartean, 1995ean Ukrainako Parlamentuak indargabetu egin zuen Krimeako Konstituzioa eta presidente kargua.

Jason Sorens-ek sezesioaren inguruko liburuan oso ondo esplikatzen du mugimendu sezesionisten gaitasuna testuingurura egokitzeko, batzuetan autonomiaren alde eginez sezesiorako aukera politikorako egitura aproposa egon arte. Ukrainan estatu kolpea eman da eta errusiar hiztunen eta Krimeako eskualdearen kontrako keinu eta legeak onartu dituzte kolpistek. Horrelako baldintzek laguntzen dute sezesio prozesu bat, estatua krisi sakon batean dagoenean.

Arazoa da mendebaldeko herrialdeetan bizi garenok ez dugula tamaina horretako krisirik ezagutu. Horregatik bilakatu zen hain inportantea Kosovoko adibidea, mendebaldeak sustatutako kasua zelako. Halere, gure sezesio prozesuek ibilbide oso garbi eta erabat demokratikoa egin behar dute helburua eskuratu nahi badute. Jakinik praktikan estatu batek erabakitze eskubidea baimentzen duenean oso zaila dela independentzia lortzea (Quebec). Baina, Espainia hain da baldarra, bere itxitasunean katalan herritar gehienek independentzian ikusten dutela irtenbide sinesgarri bakarra. ■





SORKUNTZAREN ERREZETA
OLHANERTZEKO basajaunaren
arabera:

%10
INSPIRATIO

%90
TRANSPIRATIO



© Edison

Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Ez dakit zer naizen eta ez nago harro

ESAMOLDE topiko bihurtu da aldarrikapen askotan: “Halakoa naiz eta harro nago”. Nik zer naizen ez dakit, bai, ordea, ez nagoela harro. Harroak bizkotxoak egotea hobe, ez pertsonak. Gure pailazo talde ohiaren ibilbidea harro egoteko arrazoiak zela esan zidan joandakoan lagun batek. *Sufi* maisu eta Jesukristoren antzera neuk ere parabola batez erantzun nion: “Baziren bi ahizpa, seme-alaba txiki hainbat eta aita zaharra zituztenak. Oporretan, egunero, aita zegoen ahizparenean biltzen zituzten haur guztiak. Hango gela handian aritzen ziren jolasean, gurasoak lanean edo bestelakoetan zebiltzalarik. Hantxe ere aita zaharra besaulkian, aspalditik ibili eta hitz egiteko ezindua. Haurrak entretenitzeko Txirri, Mirri eta Txiribitonen bideoak ordu askotan jartzen zituzten ikusgai.

Halako batean, ahizpa batek kaletik bueltan etorritakoari esan dio:

- Aizan, aita zer bait esan nahi duela ematen din.
- Ezinezkoa, neska, lau urte daramatza hitzik esan gabe—. Hurreratu zaizkio, baina, eta ia ahotsik gabe zaharrak honela esan die:
- Kenduko al dituzue behingoz pailazo plasta horiek telebistatik!”.

Hau ez da parabola, ezagun batzuei benetan gertatua baizik. Horiexek izan ziren aita horren azken hitzak (egiazalea izatekotan, apur bat lodiagoak), handik egun gutxitara hil baitzen. Gure balizko harrotitaren aurkako txerto ona.

Gizajo eginda ibiltzea ere triste da. Nork bere buruaren onarpen pozgarria behar du, baldin osasuntsu biziko bada. Gure aitona-amonen garaiko abestian, azal txuria modan zegoenean, ederki agertzen da ideia hori:

Beltxarana naizela
kalian diyote,
enaiz txuri ederra,
arrazoya dute.
Txuri eder galantak,
dozenan hamabi,
beltxaran graziosuak,
milaetatik bi.

Claudio Magris idazle maitea Bilbon izan da eta *Berriak* elkarrizketa egin dio: “Idatzi dituenez baino gehiago, irakurri dituenez omen dago harro bera”.

Harro egotea ez da, ordea, ondo lotzen bere lanen bitartez egindako ekarpenekin. Topikoak garamatza ohartu orduko.

Eskerrak jarraian Europako kulturarik onenaren bi perla gogorazi zituen: “Tradizioarekiko errespetua baino garrantzitsuagoa da eskubideen defentsa. Hurkoa aurkitzea da sakonean ohar-tzea ez dagoela hurkorik. Ez dela benetan hain bestelakoa”.

Harro egoteko moduko ideiak beltxaran graziosoarentzat. ■



DANI BLANCO



Kattalin
Miner



KAZETARIA

“Mutiko”

AURREKOAN KALEAN nindoala andre batek “barkatu mutiko” esan zidan. Galdera bat egin zidan eta erantzuten hastearekin batera, ohartu nintzen ohartu berri zela ni neu ere ez nintzela “hain mutiko”. Prim kalea non zen azaldu ostean eskerrak eman zizkidan, baina amaiera lapidarioa izan zuen, “eta barkatu mutiko esateagatik” batekin hasi zen esaldi sorta deserosoa.

Txikitan, kontraesanez beteriko umea izan nintzen urte askoan. Mutikoa izan nahi zuena (kontzeptu gisa), baina besteek mutiko gisa identifikatzen zutenean “neska naiz!” oihukatzen zuena. Mutikoa eman nahi zuena, baina besteen filtroeta-

tik pasatu gabe, inork ezer esan gabe, baimenik gabe. Angel Erroren poema hark dioen bezala, *Neska mutilatua*.

Eta aurrekoan andre hark barkamena behin eta berriz eskatzen zidan artean, sentitu nuen txikitako sentsazio kontra-sankor hori. Neska mutilatuaren sentsazio umezurtz hori, besteak lotsatzerainoko genero okerrean bizi zaren sentsazio triste hori. Segundo bakar bat izan zen oraingoan ordea, eskaparate batean nire isla ikustearekin bat desagertu zena, neska mutilatu osaberritu bat antzematearekin batera. ■



1

2.

3

4

5

Doinua: Haizak nik hiri bota behar diat.

2014KO APIRILAREN 20A **argia** ▶ 21

Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Udaberrian abiatu nintzen

UDABERRIKO LEHEN EGUNA. Donostiako hiri-parke batean bi emakume eguzkiaz gozatzen ari dira belarretan etzanda elkarri eskua sartzen. Zangoak elkar loturik, oinetakoak lore artean barreiatuak, kamisetak leporaino igo dizkiote batak besteari eta titiak zupatzten dituzte txandaka. Handik ez urruti, probintziatik egun pasa etorri den ume saldo euskalduna briletean jolasten dabil, zaintzaile dituzten hiruzpalau irakaslearen konpainian. Uneren batean, ume batek emakume bikotea deskubritu bide du. Adin horretan sexualitateak sortzen duen kuriositatea festazkoa da. Estanpa erotikoarekin eszaturik, umeen irria eta urduritasuna zeru urdin garbira igotzen hasten dira, eta barrea, berriz, laztantzeari utzi ez dioten nesken belarrietara iristen da. Umetxoek ezkutalekutzat hartu duten harresi baten atzetik burua jasota begiratzten dute, eta berehala, burua jaitsi eta emakumeen begiradatik desagertzen dira. Noizbait, gerturatzera animatu da bat, eta handik gutxira, txandan-txandan, ume guztiak desfilatu dute bikotearen perimetroan dorpezia xarmangarritz.

Lehenengo harridura umeen oihuek sortzen didate: *"Marido y marida"* garrasi egiten dute zapaburu maitagarriek. *"Vivan los novios"*, geroxeago. Azkenean, zirkuitulabur bat gertatu da, eta harekin batera, zalaparta gorena: *"¡Son dos chicas!"*. Sexualitateak bikotera edota matrimoniara lotuta jarraitzen duela dirudi gazteenen gogamenetan. Eta sexualitate hori arrunki eta lehen inpresioan heterosexualitateara lotzen dutela. Bigarren txunditzea ezagunagoa zait, hizkuntzak eragiten duena: nolaz jolasean eta orain artean euskara hutsean aritu diren neska-mutikoek sexualitateaz mintzatzen hasirik gazte-rara jotzen duten. Ume eta nerabeen hezkuntzaz arduratzen ez garenontzat zaila da feminismotik zein beste hainbat alorre-

tatik hezkuntza hobetzeko edo iraultzeko egin diren ahaleginen ondorioak ezagutzea. Nola jakin, beraz, belaualdi berriengan txertatu nahi zirenak ze neurritan sustraitu diren.

Pasadizoak sentiarazi didana eta gero, ume saldoko neskato batengan jarri dut gogoia, iraganean ni neroni izan nintekeela imajinatzeko. Pentsatu nahi bainuke umeen artean bat edo beste etorkizunean umezaroko egun honexetaz gogoratuko dela. Beharbada, harreman eredu nagusiari ihesi beste eredu baten bila baldin badabil. Apika, lagun egingo dio eremu publikoan musutik haratagoko sexu adierazpenak gogoratzeak ere. Baina

hobekiago pentsatzen jarrita, irudikatu nahi dut aspaldiko oroitzapen izango den hau ez duela beharko erreferente gisa eta desagertua izango dela. Hots, udaberri berrietan abiatuko dela dama gazteen bila gu abiatu ginen baino motxila beteagoz eta parkeko eredu

bestea milaka ereduren artean difuminatua izango dela ordurako. Ni ume nintzelarik lesbiana hitza esate hutsa martirio bat zen nire bular txikiarentzat eta nituen erreferenteak, hutsaren hurrengo izateaz gain, besteen narrazioek marraztutako irudi estereotipatu ilunak ziren (lesbiana amargatua, okerra, maltzurra). San Jose lore eta margari-ten artean etzandako bi gorputz agerikorekin zerikusirik ez, edozelan ere!

Ikasgeletan egunero-egunero zuen hitz eta adibideekin, zuen ausardia eta sinesmenarekin eredu anitzak erakusten dituzuen irakasleei oles eta ole! Ikusitakok ikusita ere, ziur naiz zuen lanari kalekoon ikusgarritasuna gehituta, bagoazela, pixkanaka, guztion

odol aztoratuak modu berean agerraraziko dituen udaberri baterantz. ■



Antton Olariaga



Mikel Laboaren esperimentazioa esperimentazio iturri

Gernikako bonbardaketaren urteurrenarekin bat estreinatuko da *Gernika Lemoizen*. Mikel Laboaren *Lekeitio*etako bat Lemoizko testuinguruan lekututa interpretatzen duen dantza flamenko garaikidea du ardatz bideo honek, eta zuzeneko emanaldi berezi batez eman nahi zaio hauspoa. 40 minutuz, Laboaren doinuak eta berorietan oinarrituriko dantzak taularatuko dituzte, Franz Kafkaren *Legearen aurrean* testua (Itxaro Bordaren ahotsean) haritzat hartuta. 24ean Donostian eta 26an Astran.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

BILLARREAN JOKALARI TREBEAK egiten dakien bezala, efektuz eta karanbolaz batu ditu itxura batean urrun, kasik aleatorio, liru-diketenak: Gernika, Lemoiz, Italia, flamenkoa, Mikel Laboa. Nork? *Lau kantari* (Pamela, 2011) liburuaren egile Juan Gorostidik, ekimenaren produktore den neurrian, baina baita alboan izan dituen bi emakumeek ere. Bata, Manuela Carretta (Schio, 1965) duela zortzi bat urte Laboaren obraz maiteminduzen koreografo eta dantzari italiarra, 2011n *Haika Mutil* edo *Orreaga* flamenkoz jantzi zituen. Bestea, Irati Gorostidi (Eguesibar, 1988), bideo-kamera tresnatzat hartu duen sortzailea, egun Amsterdamen bizi dena.

Emitza, estreinaldiari aurea hartuta ikusi dudanagatik, ez da batuketa hutsa, ez da aipaturiko elementuen metaketaz iradoki nahi duen sormen lana, ez da modara lotu den beste bideo bat, ez da flamenkoa han eta Mikel Laboa hemen, edo Lemoiz azal eta



IRATI GOROSTIDI

Bideo lanaren sekuentzia gehienak Lemoizko zentral nuklearraren baitan grabatu zituzten.

Gernika mami. Fin harilkatuta datoz testuinguruari lotutako sentsazioak eta doinuari atxikitakoak, gerrako bonbardaketa, indar nuklearra, oldartzea, suntsiketa, erresistentzia, mamuak, egiaren argi-itzalak, ihesa, aurrera egin beharra. Lipar bakar eta berean, ordukoa eta oraingoa. Geurea eta unibertsala. Lehenagotik ere esana baitu Gorostidik, “artista maitatuak kanonizatzeko joera dugu, mitifikatzekoa, eta gorazarreetan laudoriozko gauza goxoak besterik ez egitekoa; eta, hala, tamalez, irakurketa kritikoa zailtzen da. Baina, diot nik, ikono bilakatu behar ditugu ezinbestean eta beti? Mikel Laboaren kasura etorrita, oso gurea dugu haren lana, baina era berean unibertsala da, eta edozein artistak hartu dezake, eta landu ostean zerbait itzuli guri, esperimentazioaren bidetik, hark egin zuen bezala”. ■



Ezkerretik hasita, Irati Gorostidi, Juan Gorostidi eta Manuela Carretta, Armintzan.

«Urtetan etorri ez direnak joan ez balira bezala sentitzen dira itzultzerakoan, Muga tabernan»

Unamuno plazatik oso hurbil dago Muga, 30 urtez maketak, fantzineak, kontzertuetako sarrerak eta ogitartekoen aukera zabala eskaini dituen taberna. Barraren atzean Juanca Bilbaok portugaleterra dago hasieratik, bezeroen nahietara etengabe eraldatu den gizon kementsua. Bera eta bere ingurukoak gabe ezinezkoa zatekeen Bilbon hamarkadatan bizi izan den rock mugimendua. Maiatzaren 4an urteurreneko jaia antolatuko dute Kafe Antzokian.

| IKER BARANDIARAN |

Zer eman dizu Bilbok?

Dena, baina nik ere eman diot Bilbori. Gaitz egitea gustatzen zait, ez suntsitzea, baina bai haize kontra joatea. Gaztetxea nintzenean, jendea txundituta etortzen zen Londresetik. “Ez dago hara joan beharrik. Saiatu hangoa hemen sortzen, gure esku dago”, esaten nien.

Muga tabernan lan handia egiten duzue bezeroa asetzeko. Ostalaria jaio ala egin egiten da?

Muga ez da askorik aldatu 30 urteotan, gauza txikiak dira aldatu ditugunak. Musika eta giroa antzekoak izan dira beti. Bada jendea urtetan etorri ez dena, eta bueltatzerakoan joan ez balitz moduan sentitzen da. Hori oso garrantzitsua da guretzat.

Txikitero taberna zabaltzeko asmoa zenuen.

Plaza Berrian halako tabernatan ari-tua nintzelako. Baina proiektuak tabernarion eta bezeroen artean gauzatzen dira eta oharkabea gauza asko gertatu ziren: gazteria bera eta ohiturak aldatu ziren, Iturribide kalea heavyz bete zen, Gaueko tabernan kontzertuak egiten hasi ziren...

Beste inon ez bezala, maketak, fantzineak eta antzekoak saltzen hasi zineten. Halako kulturatik zentozen?

Ez. Portugaleteko jai batzordean ibilia nintzen, Batasuna izeneko dantza taldean eta fanfarrean... Portugalete “Errusia txikia” zen orduan, eta askok kontzientzia ezkertiara

genuen. Sasoi hartan tabernen zirkuitoa zegoen: Gaueko, Umore Ona, Gure Txoko, Okiniz, La Rueda, Blanco y Negro. Muga irla bihurtu da gaur egun.

Kike Turmixengatik hasi zinen kontzertuak antolatzen?

Turmixek gauza asko erakutsi dizkit, egin beharrekoak eta egin behar ez direnak ere bai. Bada jendea Turmixek baino askoz gutxiago eginda dirua eta dominak irabazi dituen. Turmixekin zorretan gaude. Gainera, garai hartan ez zegoen kontzertuetarako azpiegiturarik, Last Tour oraindik asmatu gabe zegoen.

Pasaba por aquí eta *Beatnick Fly* fantzineen ondoren 3D musika promotora sortu zenuten.

Bai, Psychobilly, Iñaki Lolailo, Santi Atxuko, Estibaliz de Migel eta bostok hainbat talderen managementa eraman genuen Iturribideko bulego batean: El Inquilino Comunista, Los Clavos, Pop Crash Colapso... eta Sociedad Alkoholikak Europatik egin duen bira bakarra antolatu

genuen. Ehunka kontzertu egin genituen: Gauekon, Gaztetxean, gerora Bilborockek hartu zuen Mesedeetako Elizan, En Canal-en, La Casillan, Kafe Antzokian... Mesedeetako eliza erostekoak ginela, guk baino sei aldiz diru gehiago eskaini zion Udalak Elizari.

Bilbo Hiria lehiaketarekin ere hartu-eman handia izan zenuten.

“Nik sortutako EZ-GAE logoa hor dago oraindik, baina ez nuen luzaroan borrokatu. SGAE piramide forma duen iruzurra da, hori da gakoa”



Bai. Kartelak sortzen genituen, segurtasuna eramaten genuen... Lehiaketa hori ez baitzen udalean jaio, kalean baizik, eta orduko kultura teknikari Andoni Olivaresek gogor borrokatu behar izan zuen udalean. Gauza bera gertatu zen Bilborocken dagoen Euskal Herriko musika artxibategiarekin. Olivaresen eta Pablo Cabezaren ahaleginagatik gauzatu zen. Eta orain itxita dago, ez dakit zergatik.

Ezin ahaztu En Canal aretoa. Ia azpiegiturarik gabe gauza erraldoiak egin daitezkeen seinale. Hala da. Artista talde batek Zorrozaurren galduta zegoen lokal batean kontzertuak eginen utzi zigun. Psychobilly, Santi Merchan eta hirurok ginen eta urte eta erdian Bilbon inoiz sortu gabeko eskaintza lortu genuen. Orduan ez zegoen inongo kontzertu aretorik. Dictators taldea berpiztea lortu genuen, The Velvet Underground-eko Moe Tucker, Kim Salmon, Dee Dee Ramone, Chesterfield Kings ekarri genituen, Euskal Herriko talde ugari.

SGAEn kontra gogor aritu zinen eta Euskal Herriko egile eskubideen elkarte baten alde egin zenuen, baina egileek ez zintuzten jarraitu...

"Oraindik ekimenik ere baden arren, lehengo Bilbo desagerrarazi dute. Baina ez da agintarien erru hutsa, ostalariona ere bada".

Salatzekoa da SGAEk urteetan egin duena eta jendea ohartzen hasi da mafiosoak besterik ez direla. Adibidez, bat-batean kubatar eta mexikar musika asko entzuten hasi gara, SGAEk horien eskubideak hartu dituelako... Nik sortutako EZ-GAE logoa hor dago oraindik, baina ez nuen luzaroan borrokatu. SGAE piramide forma duen iruzurra da, hori da gakoa.

Era berean goiztiarra izan zinen Bilbon rock jaialdi erraldoiak antolatzen. Gerora, beste batzuek jaso dituzte emaitzak.

Ez ginen lehenak izan. Guk baino bi urte lehenago, 2001ean, Serrano promotoreak Rockazoka antolatu zuen. Bilbao Action Rock jaialdia 2003an egin genuen. Erakunde publikoek diru-laguntza ziurtatu ziguten eta bi aste lehenago, guztia iragarrita genuenean, kendu. Horrek baino amorru handiagoa eman zigun handik gutxira Last Tour promotoreak Bilbao Live Festival [gero BBK Live bihurtu dena] antolatzerakoan BAR jaialdiaren proiektuko lehenengo bi orrialdeak komarik aldatu gabe aurkeztu izana.

Bilbo dagoeneko ez da hiri sortzaile eta apurtzailea?

Oraindik ekimenik ere baden arren, lehengo Bilbo desagerrarazi dute. Baina ez da agintarien erru hutsa, ostalariona ere bada. Adibidez, Bilbon metroa aste barruan 23:00etan ixtea ez da normala; ordu bat luzatuz gero mesede handia egingo liokete ostalaritzari.

Eta zer egin beharko zenukete ostalariok?

Gure zilborretik at ere begiratu. Luzaroan ganorazko zerbitzua eman gabe eta nahi zutena kobratuta ostegunetik larunbatera lan egitea nahikoa izan dute, baina jada ezin liteke, eta berrasmatu beharra dago, gauza berriak egin. Ideiak eta ausardia falta dira.

Zer (izan) da zuretzat Muga? Babeslekua, presondegia, laborategia?

Aipatutako guztia da, baina lehenik eta behin, Mugak bizitza salbatu didala esan behar dut. Egunero taberna zabaltzeko ardura izan ez banu, agian hilda nengoke. Mugaren historiak, beste gauza askoren artean, heriotzak ere baditu, jende on askoa galdu dugu.

Zer daukazu orain esku artean?

Eki txanponarekin hasi gara, berau erabilgarri duen lehen taberna da Bilbon. Horrez gain, dagoeneko 30 ogitarteko begano eskaintzen ditugu. Maiazaren 4an Kafe Antzokian egingo dugun jaia ari gara prestatzen. ■




HERRIETAKO BERTSO LIBURUAK

Garai guztietako ahotsak egungo irakurleen eskura

Bertsoaren haria Hernanin liburua aurkeztuko da apirilaren 27an. Honen antzera, herri edo lekuan lekuko bertsolaritza bildu duten liburuak erakutsi nahi dizkizu artikulu honek eta zure herrian bat osatzeko irrika piztu.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |



HERRIAN ezagutzen den lehen bertso printzatiatik egungorainoko errepasoa egin dute hainbat liburuk. Txabolategi bertsolariaren biografiarekin eta Villabonako plazan milaka lagunuen aurrean egin zuen desafio historikoa-rekin hasten da *Bertsoaren haria Hernanin* liburua eta kasualitatez Txabolategiren ondorengo den Eli Pagola bertsolari gaztearen biografiarekin eta 2013ko Txapelketa Nagusiaren laburpenarekin bukatzen. *Orio: ehun ute kantuan* liburuak ere ahalik eta garai zabalena bildu zuen. Halakoetan, Antonio Zavalaren Auspoa saila izaten da iraganaren iturri nagusia, Orioko liburuaren egileetako bat den Iñaki Iturrainek azaldu duenez: “Auspoa saileko hiruzpalau liburutan agertzen zen Donostiatic Oriora bitarteko mendi horretan zegoen ‘bertso aberastasun ikaragarria’, [horiek Antonio Zavalaren hitzak]. Bera ibili zen Orion eta hainbat lekukoren bidez bertsolari haiek denak jaso zituen eta *Balearen bertsoak*

ere bai: publiko zabalarentzat Auspoak atera zituen lehenengoz. Guk egin genuena izan zen hura ekarri, egokitu eta geroztikako bertsolariekin osatu: Manuel Lasarte, Patxi Etxeberria, Sarasua anaiak, Xabier Sukia, Ibai Esoain, Iñaki Gurrutxaga... bertsolari bakoitzaren biografia labur bat eta bertso sorta bana ekarri genuen”. *Zeruko Argia* eta ARGIA-ko artxiboetatik ere asko jantzi da Hernaniko liburua, nola bertso, argazki eta kroniketan.

Euskal Herriko mugimenduen oihartzunak

Herrietako bertsolaritzaz ateratako gainerako liburuak, berriz, garai jakin bateko mugimenduen berri ematen dute. Adibiderako, *Zumaia: 20 urte kantari* liburuak bertso eskolaren sorrera biltzen duela kontatu digu bere egile Joan Dorronsorok: “Zumaiaiko esperientzia azaltzea zen nire helburua, Euskal Herriko mugimenduan txertatuta: Euskal Herri osoan eman zen bertso eskolen sorrera

eta Amurizak ekarritako berrikuntzarekin, eta ikastolen sorrerarekin ere oso lotua zegoen”. Hernaniko liburuan ere bete-betean agertzen dira Euskal Herriko bertsolaritzaren testigantzak, garaian garaiko puntako bertsolarien aleak, Txapelketak, baita Bertsozale Elkartearen sorrera eta bilakaeraren berri ere. Iturainek historia tokian tokian osatzen dela argi du: “Historia orokorra ondoren lantzeko modua bakoitzak bere herrikoa egitea dela uste dut. Horren baturak ematen du historia osatua”.

Historia bat idaztea baino, ahozko istorioak jostea izan dut helburu *Bertsoaren haria Hernanin* liburuan. Horretarako herriko bertso mugimenduko kide izan diren 35 pertsona elkarrizketatu zituzten lehenik Unai Agirre eta Jexux Mari Irazuk (“Hernani bertsotan” DVDn daude bilduak eta liburuarekin batera banatuko dira) eta geroztik libururako berariaz beste 15 elkarrizketatu ditu egileak. Bakoitzak bere esperientziatik, berak ezagutu duenetik hitz egin du eta horien baturak kontakizun anitz bat, batzuetan kontraste handikoa izan du emaitza. Momentu bera oso modu desberdinetan bizi izan zutela agerian geratuz.

Historiako hainbat lekukotasunez gain, mila gai aurkituko ditu irakurleak zeharka herrietako bertso liburuetan. Dorronsorok herri kulturaren ezaugarria hori dela azaldu du: “Kultura da muina herri baten bizitzan. Eta kulturaren baitan muin-muina da ahozko literatura, bertsoa, txistea... eguneroko bizimodu arruntarekin oso lotuak dira. Hor mila adar eta habe dabilta trabeska: politikoak, sozialak, ekonomikoak... denak”.

Ekarpen nagusiak

Beste herriei bertako bertsolaritzaren berri biltzea gomendatzen diete Zumaiako eta Orioko liburuak idatzi dituztenek. Dorronsororen iritziz balio du mugimenduari arnasa emateko: “haize ematea, hauspoa ematea eta su horri eragitea oso garrantzitsua da. Herri bakoitzean bertsolaritza airetu, jaso eta argitaratu eman behar da”. Iturainek gogoan du nola hartu zuen Orioko herriak liburuak:

Joxepa Zubeldia, Txirritaren garaian Hernanin bertsolari

Hernaniko liburuaren ekarpen handienetakoa plazan kantatzen zuen Zubeldia bertsolaria deskubritzea izan da. Bere bertsoak ezagunak ziren, baina pertsonari buruz hizki bakar bat idatzi gabea zegoen inoiz. Ondorengo bilak hasi... eta Antza inprimategiko lankidea! (Liburuaren azala diseinatu duen Arantzazu Ruiz). Bere familiak emandako testigantzei esker jakin dugu bertso ibileren berri (*Bidea urratu duten bertsoak* liburuxkan duzu laburturik). Ezerk merezi badu, Auspoatik kanpo geratu ziren haien berri lehenbailehen biltzeak du. Bertsolari haiek ezagutu zituztenak behar bada egunero gurutzatzen ditugu.

Bilobek gordetzen dute Zubeldiak bertsoak, olerkiak eta gainerakoak idatzeko erabiltzen zuen mahaia. *Bertsoaren haria Hernanin* liburuak dago orain mahai haren gainean.



Tokiko bertsolaritza landu duten liburuak

- *Hamar urteko uzta: Goierriko Bertsolari Eskola 1982-1992*. Iñaki Murua, Xabier NARBARTÉ.
- *Araba, bertso histori ezberdin bat*. Ruben Sanchez.
- *Nafarroako bertsolaritza*. Pablo Joxe Aristorena.
- *Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980)*. Fredi Paia
- *“Garriko” bertso eskola 1959-1960: Euskal Herriko “lehenengo” bertso eskolaren historia osoa ta zehatza*. Pedro Mari Aldana.
- *Orio, mende bat bertsotan*. Iñaki Iturain, Ibai Esoain, Xabier Sukia.
- *Zumaiako bertso eskola: 20 urte kantari*. Joanito Dorronsoro.
- *Urolaldea bertsolari*. Joxin Iturrioz.
- *Bertsoaren haria Hernanin*. Estitxu Eizagirre.

Orioko balearen bertsoak


“1901eko urtean harrapatutako balea hari jarritako beste sorta bat ere bazela jakin nuen Auspoako liburu batean, kalitatez kaskarragoa. Sorta hori ere ekarri genuen liburura. Orioko balearen bertso ezagunetara etorrita, badirudi doinua propio sortu zutela bertso sail hartarako eta ahoz aho jaso dugula gaur arte. Oriotik Euskal Herri osora zabaltzen eta askoz geroago Benito Lertxundik egin zuen famatu”.

Iñaki Iturain

“Herriko bertsozaleentzat opari handi bat izan zen, informazio asko biltzen zuelako. Batzuentzat emozio iturri handia ere bai, garai bateko pertsona batzuk berreskuratu zituelako”. Herriko ikastetxeetan bertako curriculumak, bertako bertsolaritza lantzeko iturri ere badira liburu hauek. Eta Auspoan lehenik bilduta zegoen altxorra gizarteratzeko ere bai: “Herrikotxia, Txanka, Itxaspe, Seikola... bertsolari haien denen berri irakurtzea, haiek kantatutako bertsoak... eguneroko gizar-tean bizi-bizi zegoen bertso

mundu hura deskubritu nuen Auspoako liburu haien bidez. Benetan zirrara eragin zidan. Oriotar gehienek sekula ez dute Auspoako liburu bat irakurri eta gure liburuak ekarri die altxor hori”. *Auspoa, Zeruko Argia* eta gainerako iturrietako altxorra gizarteratzeko, ahozko lekukotasunak idatziz biltzea eta tartean tartean urre pepita diren aurkikuntzekin topo egitea suertatzen da. Bila dabilenak arriskua... ■





Helduen Literatura

Hori da umorea maisu!
Mo Yan

Itzultzaileak:
Maialen Marin, Aiora Jaka.
Elkar, 2013

Izotza eta sua

2012AN Literaturako Nobel saria jasotako idazle honen *Hori da umorea, maisu!* irakurtzen hasi nintzenean Txinako literatura euskarara ekarria zelako egin nuen eta gogotsu ekin nion irakurtaldiari. Baina hasierako inpresioa ez zen batere ona izan, burura etorri zitzaidan literatura femeninoari buruz hitz egiten dutenei literatura maskulinoaren adibide garbia erakusteko moduko adibidea zela hau. Bestela esanda, oso literatur lan androzentrikoa iruditu zitzaidan. Protagonistak gizonezkoak dira eta bigarren mailako pertsonaiak emakumeak. Oso zakarki tratatzen dituzten eta etxean haien tzat lanean dauden emazteak edota liluratuta grina sexual bezalaz miresten dituzten emakume eder eta gazteak dira. “Errun berri duten kakara iskanbilatsua” da emakumeen ahotsa lehen ipuinean, bigarrenean herri baten sinbolo bezala irudikatu eta mendekuzko hitz lizunak esan eta gero bortxatzeko eskubidea zuela sentitu zuen protagonistak, emazte berriak ihes egitean bere senarra gorrotoz bete eta jipoitzeko eskubidea emango dio laugarren ipuinean agertzen den bezala. Baina aurrerago, azken lau ipuinetan aldatzen joaten da emakumeen irudikapena. Azken hirugarren ipuinean ikasketak eta borrokarako gaitasuna ematen zaizkio, idealizazioa ezereztatu eta hezur-haragizko pertsona bihurtzen da emakumea gizonaren aurrean azken aurreko ipuinean, eta azkenengoan, abandonatutako haurrak neskak direla salatu eta tradizioa aldatzeko beharra agertzen du.

Liburu honetako ipuinetan Txinako historiako zatiak aurkituko dituzu fikziora ekarriak, nekazari, langile eta haurren begietatik ikusi ahal izango duzu mundua, errealitatetik eta fantasiatik ibiliko da narrazioa eta legendek eta mitologiak espirituak eta magia ekarriko dituzte orriotara. Lehen, bigarren eta hirugarren pertsonetan kontatuko zaizkigu istoriook, umorez eta amaiera iradokorrez. Egileari kasu egiten badiogu ez gara azaleko irakurketarekin konforme geratuko, beste esanahi batzuk bilatzen ahaleginduko gara hitzen atzeko mezuak bilatuz eta asmatuz. Oroz gain gustatu zaidana, ohiko irakurketetan gutxitan topatzen dudalako agian, zentzumenekin lotutako metaforak, animalia eta naturarekin lotutako konparazioak edo egunerokotasuneko xehetasunekin eta emozioekin lotutako irudiak izan direla. Aipatutakoen adibide batzuekin amaitu nahiko nuke. “Pipa erdi erretzeko behar den denbora” igaro duzu kritika hau irakurtzen eta bi irudirekin itxiko dugu testu hau: ipuinetako pertsonaia pobreak inguratzen dituen lur izoztua eta emakumeek soinean daramatzaten arropen kolore gorrietan eguzkiaren izpiek pizten duten sua. ■

Amaia Alvarez Uria



Canorik bai, ausarki

HARKAITZ CANOK Donostian trena hartu du eta Gasteizera joan da. Artium museoan Antoni Muntadas artistaren *On Translation* instalazioa bisitatu du. Hitzaldia eman du ondoren. Artea jomugatzat harturik, artearen –literatura, musika, bertsolaritza, margolaritza, antzerkia edota zinema– artifizioa desmuntatu du. Eta behin desmuntatzen hasita, artistaren egoa laudatzen duten txaloak ere desmuntatu ditu. Artistak laudorioa jasotzeko nola laidoa jasateko prest egon ezean, akufeno gaitza nozitzeraino heldu baitaiteke. Canok –berari dagokion esparru hizpide, literatura hots– kritikariaren –edo iruzkingilearen– lana ere badu hizpide, zeharka bada ere. Geure koldareriaren edota ausarkeriaren arabera idazlea gaizki tratatua izan baitaiteke.

Txalorik ez, arren
Harkaitz Cano
Edo!, 2014



Hasier Rekondo iruzkingileak –kritikaria ote?– ‘Cano’ni-*zazioari entzungor* erreseinan dioenez –erreseinaren nire inpresioa duzu, prefosta– idazle artista honek bere burua desmuntatzeko berebiziko abilezia dauka, eta idazle kanonizatua izateari ederto itzuri eginez, kanon guztien gainetik eta txalo guztien azpitik airoso jaitsi da eszenatokitik –atera da hitzalditik, hots–.

Finean eta funtsean, obra txiki erraldoi hau izarigabea da –artistaren nola-koaren arabera halakoxea bihur daiteke ere literatura nola edozein arte espresioa–. Tira, ohituta gauzka Harkaitzek. Saioa *Txalorik ez, arren* edo *Canorik bai, ausar* titulu genezake. Edo izenda nezake neronek. Saramagoren *Ensaio sobre a cegueira* buruan, bestera izendatzeari bururatu zait: *Gorrieriari buruzko saioa*. Izan ere, artista gor batekin –Ludwig van Beethovenekin hots– aski eta sobera. Zer diozu zuk irakurle? ■

Mikel Asurmendi



Lan borobila

INOIZ idatzi dut orriotan, jakina bada ere, Euskal Herrian tonaka dauden musika taldeen artean badi-rela, emaitza bereizgarria eta borobila lortu arren, sekula behar bezala ezagutzera ematea lortzen ez dutenak, ia izenez ere gogoratzen ez ditugunak. Aipatu ditzaket Norman, Anger, PAM eta beste asko; eta horien artean Kaskezur taldearen azken lana, Musikazuzenean-eko Koldo Otamendik gomendatu zidana.

Baztandar hauek bigarren diskoarekin ezagutu nituen 2011n, eta orriotan elkarrizketatu nituen *Gure jokua* zela medio. Eskemak apurtzeko egiten zituzten ahalegin eta lorpenek harritu ninduten erabat. Gai izan ziren rock klasikoa, funky eta psikodelia bar-barra lantzeko, Negu Gorriak taldeari keinuak egiteko zein azeleragailua zapalduta punk-rocka jorratzeko. Eta hitzetan irudimena muturrera eramane zuten, tarteka ia surrealismoa ukituz. Surrealismotik ere ez ziren urrun ibiliko, izenez bakarrik ezagutzen dudan estreinako *Itzulera kapsularik gabeko espaziora bidalitako azken zakuurrak* diskoa grabatu zutenean.

Baina goazen oraingo *Igora* diskora, honako hau ere taldeak berak autoekoitzia. Laukoteak espaziora gauzak bidaltzeari utzi, serioago jolasten hasi eta lan borobila gauzatu du, Hans Krügerrek Subizan grabatua eta Karlos Osinagak nahastu eta masterizatua.

Diskoa zabaltzen duen *Haizea hartzera noa* asmo iragarlea bada ere, despistatu egin dezake: gitarra bihurriak melodiaren mesedean bai, baina lagun artean abesteko moduko pieza itsaskorra da, xinpatikoa. Despistatu diot, jarraian *Sonik*-ekin datorrelako lehen danbatekoa: Fugaziren tankerako instrumentu



Igora
Kaskezur
Autoekoizpena, 2013

zehaztapenez, Ama Sayren patroiko ahots erregistroak landu eta noise pieza borobilaz erditu dira. 90eko hamarkada aldarrikatzen jarraituz, *Zerutik lurrera* erritmo bereziko

power-pop harribitxia da, gitarrak bihurrituz doazen heinean ia espiralean eztanda egiten duena, itzela! *Bizitza robota*-k ez du arnas egiteko tarterik uzten: gitarra riff irmo batek gidatzen gaitu azkar eta indartsu amildegirantz. Eta heldu da etena, *Igora* instrumental pausatu sailkaezinarekin.

Baina oraindik ez dugu trenetik salto egin eta abiadura areagotuz doa berriro: *Izan ginen*-ekin mal-dan behera goaz erritmo are eta biziagoan, rock gitarreroa eta Australiako rock malenkoniatsu eta garratzarekin topo egin arte. Hortik aurrera bideari mantsoago ekingo diogu: *Noria baten bueltaka* noise-pop garbia edo oinarri oso indartsuko pop-rocka da; *Galdu gara* abestian Itoiz eta Xabi San Sebastian ekartzen dituzte gogora, nahiz eta oso modu agerian kantua apurtzen saiatu. Eta *Oreka*-n kantuen izenari zentzua eman nahian gitarra rockeroak, bihurriagoak, ahots xuxurlatuak eta zarata bera intentsitatearen laguntzaz uztar dute. 90eko hamarkadako noise-pop delakoa irudimenez eta irmotasunez erreibindikatzeko duen lan ederra! ■

Iker Barandiaran



Liburu azoka


Barakaldon, apirilaren 23tik maiatzaren 4ra herriko plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Gurutzegrama



CHARLESJSHARP-CC BY SA

Ezker-eskuin:

1. Erran. Ugatzun emeen ugatzetan eratzen den likido zuria. 2. Gela. Samarioaren sinboloa. 3. Burdina lantzen zen lantegia. Baldres, trauskil. 4. Sasikume. Zegoen. 5. Kilometro. **Argazkiko txoria (pluralean)**. Prozedura batenaldia. 6. Laguntza. Merkatar, tratugile. 7. Aintzirak. Agorraldi. 8. Zuhaitz mota. Frijitzera behartu.

Goitik behera:

1. Lekale. 2. Hestebete mota. 3. Apaiz nagusi judua. Ile (Bizkaieraz). 4. Niobioaren sinboloa. Iztarte. 5. Eatarrak. 6. ... gora, hankaz gora. Nekea adierazteko interjekzioa. 7. Saldu aditzaren infinitiboa. Ote mota gogor. 8. Ozartasunez. 9. Lotura. 10. Une guztiz laburra. Pausaldi. 11. Konposizio musikala. 12. Sail, eremu. 13. Lapurdiko udalerrria. 14. Hegal, izkina. 15. Oinazea adierazteko.

Sudokuak

Erraza

2		9	5			7		
3	1			2	7			
4		5	3					1
5	9	4						
			9		2			
						1	9	6
6					4	5		7
			1	7			4	8
		1			8	3		9

Zaila

	9	8	2		4			
	7				8			
			3			9		8
	2						3	1
		6	5		2	8		
8	5						4	
5		3			9			
			8				9	
			6		7	4	2	

Kike Amonarrizen umorea

Igel hitzuna

Basoan barrena zebilen perretxiko biltzaile batek igel bat ikusi zuen. Zapi batean bildu eta saskian sartu zuen. Pauso gutxi batzuk eman ondoren, ordea, igela hizketan hasi zitzaion. Ger-



tatzen ari zitzaiona sinetsi ezinik, zapia zabaldu zuen. Arnas pixka bat hartu, eta esker onez, honelaxe esan zion igelak:

– Ni ez naiz zuk uste duzuna, andere prestu hori. Ni benetako infanta naiz! Emadazu musu bat eta ikusiko duzu!

Hori entzundakoan, perretxiko biltzaileak zapien bildu zuen atzera igela. Eta bere artean:

– Infanta batek ez du ezer askorako balio, baina hitz egiten duen igel batekin aberastu egin naiteke!



Soluzioak

7	4	1	6	5	8	3	2	9
9	5	2	1	7	3	6	4	8
6	3	8	2	2	4	5	1	7
8	2	7	4	3	5	1	9	6
1	9	3	6	8	2	4	7	5
5	6	4	7	1	6	8	3	2
3	1	6	8	2	7	9	5	4
2	8	9	5	4	1	7	6	3

Erraza

9	8	1	6	3	7	4	2	5
7	4	2	8	5	1	3	9	6
5	6	3	4	2	9	1	8	7
8	5	7	1	9	3	6	4	2
1	3	6	5	4	2	8	7	9
4	2	9	7	8	6	5	3	1
2	1	4	3	7	5	9	6	8
3	7	5	9	6	8	2	1	4
6	9	8	2	1	4	7	5	3

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Espan, Etsen. 2. Ganbena, Sm. 3. Oia, Ardore. 4. Sasiko, Zen. 5. Km, Zozok, Pasca. 6. Aitua, Trantari. 7. Lakua, Agorret. 8. Izel, Frijitarazi. **Goitik behera:** 1. Egokari. 2. Salami. 3. Anas. Ule. 4. Nb, Izat. 5. Etsen. 6. Etsen. 7. Sal. Oiar. 8. Ozart. 9. Etsen. 10. Aimen, Tai. 11. Fuga. 12. Alor. 13. Sara. 14. Ertz. 15. Aiel.

Maitatzea ez da erraza Palestinan



Giza Eskubideen Zinemaldia

Pelikula: *Omar*.

Zuzendaria eta gidoilaria: Hany Abu-Assad.

Aktoreak: Adam Bakri, Leem Lubany, Waleed F. Zuaiter, Samer Bisharat, Eyad Hourani.
Palestina, 2013. 98 min.



MAITATZEA ez da erraza Palestinan. Ez, behintzat, Omar gaztearentzat. Egunero, okindegian lan egin eta gero, 8 metroko garaiera duen horma zeharkatu behar du Zisjordaniako lurralde okupatueta, Nadia ikusi ahal izateko (sarri, tiro artean). Bizitza, oro har, ez da erraza Palestinan, batez ere Israelen aurkako ekintzaile bihurtzea erabakitzen duzularik.

Soldadu israeldarren kontrako atentatu baten ostean, kartzelan bukatuko du Omar-ek, eta –tortura tarteko– aterabiderik gabeko bidegurutzean kateatuko dute: bizitza salbatzeko –eta Nadiarekin egoteko– lagunak traizionatu eta hauek poliziari saldu, ala armada israeldarra engainatzen saiatu? Horiek, kartzelatik atera ostean protagonistak dituen aukera bakarrak. Biak ala biak, joko arriskutsu eta ilun baten abiapuntu.

Gatazka politikoa oinarri badu ere, ez da pelikula politikoa, eta ez da inongo unetan diskurtso manikeo eta panfletarioetan jausten. Alderantziz. Maitasunaz, gorrotoaz, traizioaz, konfiantzaz, sekretuez, etikaz mintzo den filma da *Omar*, erritmo bizia eta suspentsea mantentzen dituen thriller indartsua, amaierara arte –bereziki amaieran–

ikuslea harritzeko gai den istorio korapilatsua.

Nabarmenezkoa da Adam Bakri aktorearen lana, ideiak garbi dituen Omar protagonistaren rolean. Aktore gehienak ez dira profesionalak, lantaldea osotasunean palestinarra izatea nahi baitzuen Hany Abu-Assad zuzendariak. Abu-Assad ezagun egin zen *Paradise Now* (2005) pelikulari esker, eta arabieraz eta hebreeraz filmaturiko azken lan honek 2013ko Un Certain Regard saria irabazi du Canneseko zinemaldi prestigiosuan. Ikusteke dago Euskal Herriko zine-aretoetan estreinatuko duten. Bestela, internetez ikusteko aukera izanez gero, zinez gomendagarria da *Omar*.

Okupak, meatzariak eta euskal gatazka, Giza Eskubideen Zinemaldian


Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ikusi dugu *Omar*, klausura ekitaldian, baina beste hainbat lan interesgarri ekarri ditu XII. edizioak Victoria Eugenia antzokira, tartean Euskal Herriko lau ekoizpen: *Echevarriatik Etxeberriara* dokumentalean (2014), euskal gatazka dela-eta indarkeriak “bere izaera eta izate

guztietan” Oiartzun herrian izandako eragina aztertu du Ander Iriartek; Juanmi Gutiérrezen *Ateak zabalduz* (2014) ere aurkeztu dute, okupazio mugimenduaz; Kongoko miliziano talde baten birgizarteratzea kontatu du Unai Aranzadi zuzendariak *Jambo amani?* laburrean (2013); eta publiko gaztearen saria lortu du Raúl de la Fuenteren *Mine-rita* lanak (2013), Boliviako meatzarien lan baldintza gogorrez.

Zaintza, duintasunez hiltzeko eskubidea, iraultza sandinista, Irakeko gerraren kontraesanak, patriarkatua eta genero rolak, sexu-abusuak, patente farmazeutikoak, transgenikoak... jorratu dituzte beste hainbat pelikulek. Nerabeentzako harrera-zentro bat ardatz duen *Short term 12* filmak (Destin Daniel Cretton, 2013) jaso du ikusleen saria, eta gorputzeko organoen merkatu beltza salatzen duen *Tales from the organ trades* lanak (Ric Esther Bienstock, 2013) berriz, Amnesty International erakundearena.

**Mikel Garcia
Idiakez**





Euskal Herria ezagutuz

MONTORI (ZUBEROA)

Izena aldatuz izana ahaztu

Montori edo, izen zaharragoz, Berorize, Zuberoa eta Biarnoko muga dago. Euskal Herriaren barne dago lurraldetasunez, baina euskaradun oso gutxi topatuko da bertan. Biztanleen artean batzuek “biarnotasun” izaera bat aldarrikatu nahi balute ere, adineko bakan batzuk entzun daitezke noizbehinka biarnesez mintzo. Azken batean, Montorik bizkarra emana die aspalditik bere jatorrizko nortasunei eta zerbait baldin bada, frantsesa eta frantximanta da ororen gainetik. Beti ere, herri polita da eta balio du bertara ihes egitea.

| ALLANDE SOKARROS |

ATHARRATZE-SORHOLÜZETIK Olorüerako bidean dago Montori herria. Biarnoko Barétous –zubere-razko Ibarrettoa, hots ibar txikia– haranarekin mugakide da, muga hori Montoriko aldaparen goialdean emana delarik. Gure *Ihesi* honetarako, Montoriko herriaren erdialdean kausitzen den iturriko plazatxo politean geratuko gara. Iturri horren ura edangarria da eta

hori preziatzekoa da, ez baita dene-
tan hala gertatzen. Iturriarekin
batera arreta jarriko diegu zube-
raz latsagiak deitzen ditugun antzi-
nako arropa garbiguneei.

Eliza gotortua: erlijio gerren ondare

Leku horretatik abiatuta, eliza alde-
rat joko dugu eta haren albo-alboan
jarrita dagoen Herriko Etxeari erre-

paratuko diogu, lehenago apaize-
txea zena. 1970. urte amaieran, etxe
hau gertakari oso berezi baten leku-
ko izan zen, aparte kontatzen dizue-
guna. Elizari dagokionez, eraikin
gotortu bat dela ohartuko gara, eta
ezaugarri horrek zerikusia du Mon-
torik pairatu zituen erlijio gerren
ondorioekin. Izan ere, Biarnoko
muga izanda, Montori erlijio kalbi-
nistarekin gehiengo bat egin zuen
eta hori ez zuten batere begi onez
ikusi katolizismoari leial geratu
ziren beste zuberotar gehienek.
Zuberotar katolikoek, beraz, bi
aldiz erre zuten Montoriko eliza:
1568an eta 1661ean, azken aldi
horretan Matalaz ospetsuaren
manupean.

Historia zalapartatsu horrek,
dena den, eraikin oso eder bat utzi
digu ondarez, hoge metroko altue-
ra eta zortzi metroko zabalera
dituen kanpandorre gotortuarekin.
Andere Dona Mariari eskainita
dagoen elizaren barnealdea ere
guztiz ederra da, hamabi metro
gorako nabearekin eta XVIII. men-
dekoa den zur urreztatuzko erre-
taula batekin. Gaur egun berriro

Montori erdialdeko plazatxoa, ibilbidearen hasiera.

CHRISTOPHE DE PRADA



Erretzū mendiranzko ibilbidean gorantz egin ahala gero eta ikusmen zabalagoa gozatuko dugu.
Argazkian: Montoriko herria beheko aldean, eta gibelean, Iguntzeko lepoa eta Arbuti mendia.



Kontsula apaizetxean gatibu

MONTORIKO oraingo Udaletxea (argazkian) apaizetxe ohia da. Frantziako bandera aitzinaldean harro agertzen duen bastimendu polit eta xume horrek ospe zabala bildu izan du Euskal Herri guztian, Roger Idiart lapurtar-zuberotar apaiz zenak idatzi zuen *Basabiürüan Montori* abestiarengatik.

Kantu horrek kontatzen du 1970. urte amaieran jazo zen gertakari xelebre bat. ETako hamasei kide Burgosen (Espainia) epaituta zeudelarik eta heriotza zigorra arriskatzen zutelarik, erakunde horretako komando batek Alemaniako Errepublika Federaleko kontsul Eugen Beilh bahitu zuen Donostian. Roger Idiarten kantuak dioenez, “Txerkatürük zen aspaldi / Eta nihon ez ageri / Non ote zen gizon hori / Orai jenteak badaki...”. Bai, une batean jendeak jakin zuen Montoriko apaizetxean gatibu zegoela Beilh kontsula! Eta abendu duko gaualdi hotz batez, egoitza horretatik ihes egitea lortu zuela.

Ez goiko solairuko leihotik salto eginda, alegiak eta kantuak dioten bezala... baina begirarien zaintzak huts eginda, atetik bertatik kanporatuz! Gau hotz hartan

irekita zegoen herriko taberna batean harrapataka sartuz, Beilh gizajoak pentsatu zuen salbatuta zegoela... Itxaropen horrek ez zion luzaz iraun, tabernan zeudenez, antza, ez baitzuten sinetsi erdi biluzik zegoen eta mintzairaz ulergaitza zen gizon bitxi hura Alemaniako kontsul bat izan zitekeenik! Burutik makaldu batentzat hartu omen zuten herritarrek. Beste aieru batek dio, baina, tabernako jende haiek ohartuki berrekarri zutela kontsula apaizetxera,

bertan zeudenei hitzemanaraziz onik eta salbu utziko zutela handik laster. Eta halaxe gertatu zen, ETak Beilh kontsula aske utzi baitzuen 1970eko abenduaren 25ean. Gerorago, nazioarteko iritzi publikoaren eta salaketen presiopean, Franco diktadoreak ez zituen Burgosen epaituak heriotza zigorrera kondenarazi. Orduan bai, Roger Idiarten kantuaren amaierak beharbada egia dio: “Montorik ez ote dütü / Eüs-kaldün zonbait salbatü?”.



HAVANG (NL)-CC BY SA

dotore eta miresgarri agertzen zaigu eliza hau, baina ia osoki berreraiki behar izan zen 1967ko agorrilaren 13an gertatu zen eta Montori larri kaltetu zuen Eretako lurrikararen ondorioz.

Elizatik aurrera segituz eta herri erdialdeari bizkarra emanda, Atharratze-Sorholüzetik Olorüerako bide nagusia zeiharkatuko dugu, pare-parean abiapuntua duen Barkoxerako bidea hartzeko. Hortxe bertan, bitxikeria bat. Herriko sarrera-irteeretan euskal idazkerako Montori emana delarik, Paueko Kontseilu Nagusiak ezarrarazia duen autobus geldiguneko aterpean, aldiz... Berorize izena ere emana da! Horrek erran nahi ote du Paue aldean herri honen euskal izen zaharrari arreta handiagoa jarri diotela Montorin bertan baino?

Trenbide zaharraren lekuko isila

Galdera hori gogoan, aurrera joko dugu bide txiki horretan, Erretzü izena daramaten ibilbide seinaleei jarraituz. Erretzü da, apur bat ezkeraldera daukagun mendi pottoloa. Apanize errearen gaineko zubitxo

Herriko sarrera-irteeretan euskal idazkerazko Montori emana delarik, autobus geldiguneko aterpean emana da ere herriaren euskal izen zaharra: Berorize

bat pasaturik, aldapa baten goiko aldean eta gurutze bati bizkarra emanda, ezker alderat hartuko dugu beste bide txiki batean, beti ere Erretzü ibilbideko seinale hori

kolorekoei jarraituz. Berehalaxe, laborari etxe batetik hurbil, tankera bitxiko etxe zahar txikitxo bat ikusiko dugu, gaur egun nekazalgotresnen aterpe gisa baliatua dena. Eraikin hori da, Maule-Lextarre eta Olorüe artean, Atharratze-Sorholüze eta Barétouseko ibarretatik pasatuz, 1902 eta 1931 urteen artean funtzionatu zuen P.O.M. trenbideko geltoki ohi bat. Geltoki ohi horietatik hiru baizik zutik geratzen dira Zuberoan: Zalgizekoa, Sorholüzekoa eta Montorikoa.

Carrère izena duen baserria igarota, bideak gorantz egiten du, Erretzü mendiaren altzoan bihurguneak eginda. Igotzen garen neurrian, geroago eta ikusmen zabalagoa gozatuko dugu, Montori herria eta Beguze mendia hegoal-



Montoriko eliza gotortua, erlijio gatazketan katolizismoaren aldeko zuberotarrek bi aldiz errea, 1568an eta 1661ean, azken aldi horretan Matalazen manupean.

dean ditugula eta Arbaila mendialdea, berriz, mendebaldera. Hegoekialdean, berriz, eskalada egiteko toki apartak diren Argibeleko harkaitzak ditugu. Beste bide sarde batera iritsirik, eskuin alderat hartuko dugu, oraino ere ibilbide seinaltuari jarraituz. Aldaparen goian, Ürrütigoti baserri zaharraren ingurura helduko gara. Etxea bera saihesteko gisan, bidea utziko dugu eta xenda batean sartuko gara. Ürrütigoti etxearen albo-alboan iragan eta gero, xenda oso polit batean jarraituko dugu, bi aldeetarik gorosti eta hurritzek benetako tunel batean pasaraziko gaituztelarik. Bidexkak apurtxo bat behera egin ondoren, Erretzüko lepora iritsiko

gara, ezker aldean borda handi eta polit bat izango dugularik.

Beloeko bazkalekuan behera

Hementxe, kontuz! Orain arte jarraitu dugun ibilbide seinala horiduna utziko dugu, zuzen-zuzen eta apurtxo bat behera abiatzen den lurrezko bidexka bat hartuz. Hasiera horretan lokatz asko egon daiteke, baina zati horiek erraz saihesten ahal dira. Erretzü mendiaren ekialdeko maldaren behealdean garela, lurrezko bide horretan poliki-poliki behera egingen dugu. Beloke izena duen lautadatxo polit batean atsedena hartzeko aukerarik izango dugu, pare-parean pinuz landatuta dauden Saihabagiako

hegiak ditugula. Lurbide hori, azken batean, bide txiki batean amaituko zaigu eta langa bat ireki eta itxi ondoren, bide horretan eskuin alderat joko dugu.

Barkoxe eta Montoriren arteko bide txiki eta polit horretan hiru kilometro inguru egingo dugu, bazter berdeak gozatuz eta Montori oraingoz ere laborantza bizirik duen herria dela argiki ohartuz. Topatuko ditugun bide sarde orotan zuzen joko dugu eta une batean gurutze batez hornitua den aldapa gainera bueltatuta izango gara. Bertatik, bospasei minutu barru sartuko gara berriro Montori-Berorize herrira. Montorin bertan janari saltoki bat eta okindegi bat topatuko ditugu, baita ospe oso ona duen *L'Étable* izeneko jatetxea ere.

Zehaztu dugun ibilbide hau ordu eta erdi eta bi ordu bitartean egin daiteke. Zerbait luzeago egiteko gogoia dutenentzat, Erretzüko lepoan ibilbide seinaltuan jarraitzeko aukerarik badago, Erretzü mendi tontorrera igota (700 m), haren hegi guztiz miresgarriaren behera eraitsiz eta topatuko diren ibilbide seinaletan *Montory* norabidea aldi oro hautatuz. Txango horren egiteko bost ordu inguru behar da, baina benetan merezi du. ■



Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzaila.



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Bihotza babesteko, zaindu birikak

EZ BADUZU arnasa ondo hartzen, bihotzak odol gehiago ponpatu beharra dauka gorputzera behar adina oxigeno helarazteko, eta gainesfortzu horrek ordaina ekarriko dizu epe ertain edo luzera.

Birika osasuntsuak ezinbestekoak dira ondo arnasteko, baina baita zure gorputz osoa sasoiari mantentzeko ere. Behar bezala arnasteak gorputzean zehar zirkulatzen duen odola oxigenoz betea joango dela esan nahi baitu, eta horrek bihotzaren lana erraztu eta gainerako organo guztien funtzionamendua hobetzen du.

Ohitura egokiak

Yoga eta igeriketa ezin hobeak dira birikak indartzeko, horiei esker arnasketa erritmikoki kontrolatzen ikasiko baituzu, arnasa sudurretik hartuz eta ahotik kanporatuz. Horrez gain, badira hobeto arnasten lagunduko dizuten ariketa espezifiko batzuk:

- **Ez galdu erritmoa.** Oinez zabiltzala, hartu arnasa sudurretik bi pauso egiten dituzun bitartean, eta bota kanpora hurrengo lau pausoetan. Ondoren, igo eta jaitsi eskailerak, maila batean arnasa hartuz eta bitan kanporatuz. Horrelako ariketek arnasteko gaitasuna hobetzen dute.

- **Zabaldu bularraldea.** Eser zaitez besoak luzatuta eta eskuak gorputzaren aurreko aldean kateatuta dauzkazula, eta jaso itzazu ahalik eta gehien gorantz, airea sudurretik hartuz eta botaz.

- **Sendotu diafragma.** Bilatu leku lasai bat, eta etzan zaitez ahoz gora, burko bat jarritzela belauen azpian eta beste bat buruaren azpian. Besoek gorputzaren albo



JOHN SHERWELL-CC BY SA

Igeriketa ariketa ezin hobeak dira birikak indartzeko.

banatan egon behar dute. Hartu arnasa sakon, eta imajina ezazu zure abdomena globo edo puxika moduko bat dela, poliki-poliki puztuz eta hustuz doana.

Nolakoa da zure arnasketa?

Hitz egitean, ibiltzean edo eskailek igotzean nekatzen bazara, zure birikak ahulduta dauden seinale. Hori batetik. Eta zure arnasketari erreparatzen badiogu, balizko beste patologia batzuen berri izan dezakegu. Hona jarraian kontuan hartu beharreko xehetasun batzuk:

- **Erritmoa irregularra da.** Normalean, arnasa hartzeak botatzek halako bi irauten du. Baina hartzea asko luzatzen bada, edo txistu-hotsak agertzen badira, laringea edo trakea nolabait buxatuta

egon daitezkeela pentsa daiteke. Arnasa botatzeko denbora luzatzen bada, aldiz, tartean asma edo bronkitisa bezalako gaitzak daudela susmatu beharko litzateke.

- **Mina agertzen da.** Bularraldearen erdian min ziztada bat nabaritzeak biriketako estalkia —pleura izenez ezagutzen dena— handitu egin dela adieraz dezake. Minak okerrera egiten du ezta edo doministiku egitean, besteak beste.

- **Kontuz eztlarekin.** Kasurik gehienetan ezta katarro arrunt batek sortua izan daiteke, baina hiru aste baino gehiagoz luzatzen bada eta ez badu hobera egiten agian espezialista batengana joatea da egokiena, arazoa kroniko bihurtu ez dadin. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Elkar jan

LAGUN PREMIA izaten da baratzezaina. Agronomo jarrera hagintaria maiz ikusten da: ni ingeniaria naiz, eta lurra nik nahi dudana, nahi dudanean eta nahi dudana bezala emango du. Lagunak behar ditugula onartzea baino errazagoa da. Agronomiaren harrotasunetik, zaputza zaputza-zen gainean besterik ez dator. Halako porru haziak egin ditugu azken hamarkadetan. Baratzezainak behar dira. Landareari berari, landareei, landare komunitatei, ekosistemei eman behar zaie harrotasuna. Kultura ez al da ba nekeza? Nekazaritza al datorkigu kultura? Jakina.

Denen beharrea izaten da baratzezaina. Eta, baratze eder bat izateko, hori jakitea bezalakorik ez da. Apaltasunez abiatu. Lurrari lagunduko diot, landareari lagunduko diot, ingurumenari lagunduko diot. Eta denek niri lagunduko didate: barazki hobeak, fruituak ugari, haziak oparo, buru mardulak...

Denen laguntza eskuratze horri heldu behar zaio. Txori, urubi, tximeleta, liztor, apo, amona mantangorri, zata, oilanda, sugandila, erle... Eskua emateko prest daudenei eskua luzatu behar diegu. Animalia ugari ona da, elkar jaten dugu.

Bizi ahal izateko, landareak bere gisa topatzen, eskuratzen eta



D VSQUEZ-CC BY SA

Baratzezainaren mesederako izan ohi da baratzean animalia ugari izatea. Argazkian, oilanda.

moldatzen du behar duen energia. Animalioak, aldiz, energia eskuratzeko beste bizidun bat jan behar dugu. Jate horretan, gure baratzean kalteak sortzen dituzten animalien zaleak dira beste batzuk. Azken horiek erakarri behar ditugu, gozo-gozo zaindu eta geurean habia har dezaten sustatu.

Baratze aberatsak sortu, hori da helburua. Aberatsa, etxearen alde ariko diren aberetean joria den baratzea. Baratzea egitean kaskezurrean sartu hori. Azken metro-raino ez lurra irauli eta barazkiak aldatu. Utzi tarte emankortasunari: landatu ertzetan zuhaixkak.

Ikasi eguzkiaren ibilbidea, eta jarri itzal kaltegarriarik ez izateko moduan. Iparraldea onena. Zuhaixken azpian eta baratzekeo beste ertzetan, jarri loreak eta zuhaixkatxo bizikorrak. Denen artean gure lagunentzat giro aproposa sortuko da, eta merke-merke apopilo etorriko zaizkigu. Zenbaitetan, kaltegarrientzat babes bere izango dira landare horiek, baina alde handi bat izango da: sekula ez dira izurrite bihurtuko. Oreakatik bertarago izango da baratzea. Animalia asko, elkar jan. ■



Landare Berezien 12. Azoka Iturrarango Lorategi Botanikoa

AIA (GIPUZKOA) APIRILAREN 26a eta 27a

Ordutegia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara

Sarrera: 4 € (12 urtetik beherakoek doan)

DOAKO AUTOBUS zerbitzua egongo da Zarauzko Euskoten geltokitik eta Lorategi Botanikoaren inguruan moldatutako aparkalekuetatik

www.iturraran.org www.aiapagoeta.com www.parketxesarea.org

TEL: 943 835 389

iturraran@gipuzkoamendizmendi.net



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Emakumeentzat sei urte iraun zuen maratoia

BOSTON, 1966KO APIRILAREN 19A. Bobbi Gibb, 23 urteko neska gaztea, maratoiaren abiapuntu inguruko zuhaixka batzuen atzean ezkutatu zen, anaiaren shortak eta txanodun jertse bat jantzita. Munduko maratoirik ezagunena abiatu zenean, Bobbi zain egon zen, gutxi gorabehera korrikalarien erdiak paretik pasa arte, eta orduan lasterka hasi zen. Otsailean antolatzaileei gutun bat bidali zien lasterketan izena emateko, baina lasterketako zuzendari Will Cloneyek erantzun zion emakumezkoak ez zirela gai maratoia egiteko. Gibbek bi urte zera-matzan entrenatzen eta 60 kilometroko saioa egina zuen; nahikoa eta gehiago, maratoia lasai egiteko.

Alboan zituen korrikalariak berehala konturatu ziren emakumea zela, eta haien babesa lagun, jertsea kendu zuen. Hiru ordu, 22 minutu eta 40 segundoan iritsi zen helmugara, ikusle eta korrikalari gehienek txalo artean. Gaur egun, Boston Athletic Association erakundeak onartzen du Gibb izan zela maratoia egin zuen lehen emakumea, baina orduan haren balentria keinu sinboliko hutsean geratu zen.

Hurrengo urtean, oraindik ere emakumeei maratoia egitea debekatu arren, Gibb berriro ateratzen lasterketan, aurreko urtekoaren pareko marka lortuz. Baina orduan ez zen emakume bakarra izan; Gibb iritsi eta ordubete ingurura, Kathrine Switzerrek helmugako marra zeharkatu zuen 261. zenbakia soinean zeramala. K. V. Switzer inzialak erabiliz eman zuen izena, eta antolatzaileek ez zuten jakin emakumea zela lasterketa abiatu arte. Maratoiaren bosgarren kilometroa bete baino lehen, Jock Semple lasterketako epailea parean jarri zitzaion, maratoia uzteko esanez, eta Switzer hura saihesten saiatu zenean gerritik heldu zion. Tom Miller mutil-laguna alboan zuen eta epailea bultzaka kendu zuen paretik. Hainbat korrikalari babestuta egin zuen emakumeak gainerako bidea.



Goian, Bobbi Gibb 1966ko Bostongo maratoia bukatu ondoren, soinean zenbakirik ez duela. Azpian, Kathrine Switzer 261. dortsalarekin, Jock Semple epailea atzean duela, eta Tom Miller –Switzerren mutil-laguna– alboan, epaileari bultzaka.

Dorsal ofizialak ez zion ezertarako balio izan; deskalifikatu egin zuten. Baina bosgarren kilometroko gertakizunaren argazkia mundu osora zabaldu zen. Aurreko urtean bizpahiru egunkarik Gibben berri eman zuten bitxikerien atalean, baina ez zuen inolaz ere lortu Switzerren argazkiak izan zuten oihartzuna. Horrek indar handia eman zion emakumeen parte hartzearen aldeko borrokari. Eta, hala ere, beste bost urte beharko zituzten helburua lortzeko. 1972ko Bostongo maratoian emakumei parte hartzeko eskubidea onartu zitzaion lehenengoz, eta beste hamabi urte beharko ziren emakumezkoen maratoia Joko Olinpikoen proben zerrendari eranstea.

Lehen emakume maratoilari haiek sei urte behar izan zituzten maratoia burutzeko, edo, Bostongo lasterketa 1897an sortu zela aintzat hartuz gero, 75 urte. ■




Arrastoak

Marco Polo Txinara iritsi al zen benetan?

HISTORIALARI GEHIENEK Marco Polo Txinara iritsi zela uste duten arren, zenbaitek zalantzan jarri dute berriki. Adibidez, Frances Woodek dio Pertsiaz harago ez zela joan. Horretarako erabiltzen duen argudioa da veneziarrak ez zituela bere kontakizunean Txinako zenbait elementu deigarri aipatu. Hain zuzen, Txinako Harresi Handia eta txinatar idazkera berezia.

Gainera, garaiko txinatar dokumentuetan ez da Marco Poloren izenik aipatzen, hark Txinan Kublai Khan handiaren mandatari gisa jardun zuela adierazi zuen arren.

Aldiz, esploratzaile veneziarra Txinara iritsi zela uste dutenek diote zenbait dokumentutan “Po-Lo” izena ageri dela, eta izen hori merkataritza italiarrari dagokiola. Gainera, Marco Polok *Cipango* esan zion Japoniari, eta izen horrek txinatarrek erabiltzen zutena du oinarri. ■



Marco Polo (1254-1324).

«Nik ez nuke ulertuko EAE independente bat Nafarroarik gabe»

Bakartxo Ruiz (Iruñea, 1977) Bilduren bozeramailea da Nafarroako Legebiltzarrean eta, Goicoechea aferaren orrialdea pasata, burua gehiengo berrian jarria du. PSNrekin ezin bada, alternatiba haiek gabe osatuko dutela diosku, gizarteak emango duela horretarako aukerarik.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Josu Santesteban



“Duela hamabost egun egin zuen hitzaldiagatik, ikusi genuen agian zabaldu daitekeela euskarari buruzko ponentzia bat [Nafarroako Legebiltzarrean] eta hor PSNk eman dezakeela urrats txikiren bat”.

Gauzak asko okertzen ez badira, denak adierazten du PSNk UPNren gobernua sostengatzen jarraituko duela. Ez da oso baikorra, ez orain, ez hurrengo legealdirako.

Azken gertaerek hala adierazten dute, PSNk erabaki duela UPNk gobernuan jarrai dezala. Azken 30

urteetan, era batean edo bestean, bien artean erregimen hau iraunarazi dute, gehienetan PSNk UPN gobernuan sostengatuz. Legealdi hau ere horrela hasi zen eta une honetan krisian badira ere, saiaturiko dira konpontzen eta erregimena berreraikitzen. Dena den, nik espe-

ro dut beste gehiengo bat osatuko dela, Nafarroak behar duen aldaketaren oinarriak jartzen hasteko.

Horrek esan nahi du EH Bildu, Geroa Bai eta Ezkerraren artean egun baino [18 dituzte] zortzi eserleku gehiago lortu behar dituzuela. Mirariak...

[Barre egiten du]. Gaur egun badaude baldintzak kalean gertatzen denak arlo politikoan ere bere isla izan dezan. Nafarroa ez da bakarrik UPN eta bere ingurua, Nafarroako jendarte aurrerakoa da eta orain dugu aukera eta erronka gehiengo hori instituzioetara ere eramateko.

2011ko hauteskundeetan ere jauzi handia eman zen. Orain beste bat?

Bai, baina orain esparru abertzaletik harago dagoen gehiengo soziala osatzen ari da, adibidez ikusi Aldaketa Plazaren ekimena, hor ez dago PSN egitura bezala, baina bai bere oinarri sozialaren zati bat.

PSNkoren batzuk badira, baina zuk uste duzu PSNren oinarri soziala kalean mugitzen ari den esparru horretan dagoela?

Sektore bat bai eta hori PSNren sektore kritikoarekin dago. Baina mugimendu sozialetan ibili edo ez, herritarren sektore batek konfiantza izan du PSN-n eta orain sekulako dezepzioa jaso du. Horren aurrean beste bide batzuk topatuko ditu benetako aldaketa eman dadin. PSN barrutik saiatu izan dira egoera hori aldatzen eta une honetan horietako asko PSN kanpotik aldatzen saiatuko dela uste dut.

Diozun gehiengo horretara hurbilduko badira, badirudi sektore horiek errazago joko dutela Geroa Bai edo Ezkerrara.

EH Bilduk, Geroa Baik eta Ezkerrek erakutsi dugu benetako aldaketarako borondatea eta uste dut esparru oso hori aterako dela indartua hauteskundeetan.

Badirudi lehia gogorra izango dela maila guztietan, baita aldaketaren aldekoen artean ere. Zuek bigarren indar politiko moduan ikusten duzue zuen burua?

Hauteskundeetan ikusiko da hori. Lehia egongo da, baina guretzat askoz garrantzitsuagoa izango da aldaketaren alde gauden sektoreen arteko elkarlana. Guk behintzat aldaketa horri emango diogu lehen-tasuna.

Galdetzen dizut hori inkestaren batek iradoki duelako halakorik, iradoki

“PSN barrutik saiatu izan dira egoera hori aldatzen eta une honetan horietako asko PSN kanpotik aldatzen saiatuko dela uste dut”

duen moduan PSNrik gabe ere oposizioak lor dezakeela gehiengo Legebiltzarrean. Ez ote da UPNren jokaldia boto asmoa puztea, beraien sektorea bozka ematera aktibatzeke?

Inkestak inkesta dira, joerak, baina bai, uste dut benetako aldaketaren aldeko sektorea indartua aterako dela. Hala ere, eta gertatu den guztiarekin, UPN beldur da bere eremuko boto emaile asko abstentziora joan daitekeelako eta eginahalak egingo ditu hori saihestu eta bere esparrua aktibatzeke.

Illegalizazioaren ondorioz, politikan ez zebilen ezker abertzaleko jende pila batek hartu zuen parte Bilduko zerrendetan. Zuk errepikatuko duzu hautagai gisa?

Zerrendak osatzeko prozesu bat dago eta hor erabaki beharko da hori. Pentsatzen ari naiz, baina egokitzen zaidan tokia beteko dut. Lau urteko konpromisoa hartu nuen eta hau gogorra da. Askok ari naiz ikasten esperientzia honetatik, baina argi dut irakaskuntzara itzuli nahi dudala, hori da nire lanbide maitea.

Benetako aldaketa aipatzen duzu: zein esparru lehenetsiko zenituzke aldaketa horri ekiteko?

EH Bildu gisa denbora daramagu oinarri horiek prestatzen. Arlo ekonomikoan lehentasuna erreforma fiskala da, oinarritzko zerbitzu sozialak kalitatez eskaini ahal izatea bermatuko duena. Gehien duenak gehien eman behar du. Hizkuntza eskubideen esparrua ere oso garrantzitsua da, bai administrazioa euskalduntzeko urratsak emateko, baita Euskararen Legea egokitu eta eremu ez euskaldunean euskaraz ikasteko aukera zabal dadin. Eskubide sozialak ere bereziki landu behar dira eta ikusita ematen ari diren eta aurreikusten diren atzerapausoak, hainbat ekimen prestatzen ari gara. Emaku-



mezkoaren esparrua da horietako bat eta horretarako mugimendu feminista eta bestelako eragileekin harremanetan ari gara.

Legebiltzarrean ikusten duzunagatik eta haiekin duzun harremanetan oinarrituta, ikusten al duzu PSN-n euskararen zonifikazio kontuetan aldaketak egiteko aukerarik?

Gure asmoa Euskararen Legea aldatzea da, baina legea bera aldatu gabe ere uste dut urrats txikiren bat eman daitekeela. UPN beti saiatu da legea bera ahalik eta zentzu murritzenean erabiltzen, baina legeak ez du debekatzen eremu ez euskaldunean D ereduan ikastea. Ez du bermatzen baina debekatu ere ez. Orduan, zergatik ez da zirrikitu hori baliatzen? Eskatera egon badago eta hainbat tokitan dezente gainera. Eremu euskaldunean edo mistoan legeak onartzen du herritarrak harremana euskaraz izateko eskubidea, baina gero ez da baliabiderik jartzen hori hala izan dadin. Beraz, PSNk ere euskararen esparruan urrats batzuk emateko aukera ikusten dugu. Duela 15 egun, esaterako,

erabaki dezatela nafarrek zer izan eta norekin egin nahi duten beren etorkizuna. Hain larria da herritarrek esatea zer pentsatzen duten? Esatea esan nahi dut, ez gauzatzea. Hain larria da hori?

EH Bildu oraindik ez da aurkeztu hauteskunde batzuetan Nafarroan. Bilduko zenbait indar –Sortu eta EA– eta Aralarren arteko harremanak tentsio handikoak izan dira iragan hurbilean. Koipeztatua duzue elkarlana?

Parlamentuan bi taldetan banatuta gaude baina urtebete daramagu elkarlan estuan eta bide luzea egin dugu. Legebiltzarretik kanpo ere EH Bildu sendotzen ari gara, toki batzuetan azkarrago eta beste batzuetan geldoago. Koalizioak beti koalizio dira eta ikuspegi desberdinak izaten dituzte, baina denok gaude EH Bilduren proiektuarekin konprometituta eta horren alde lanean ari gara.

Hasier Arraizek zera esan du *Gara*-ri emandako elkarrizketa batean: “Sorturen ustez, alderdien koalizio gisa EH Bilduren etapa bat amaitzen ari da. (...)”. Bere ustez “ezkerreko soberanismoaren fronte zabal bat eratze bidean aurrerapausoak emateko” ordua da. Zer esan nahi du horrek?

Testuinguru gabe zaila egiten zait ondo erantzutea. Guk beti diogu EH Bildu alderdien batuketa baino gehiago dela. Antolaketan eta funtzionamenduan orain arte alderdiek izan dute lehentasuna eta hemendik aurrera, eragile sozialekin funtzionatzeko erabili ditugun hainbat bide gure baitan ere erabili behar ditugu. Fronte zabalaz ari denean, uste dut ari dela esaten alderdietatik harago joango den zerbait egin behar dela, aldi berean hori praktikara eramanez.

Batzuetan entzuten da, EH Bildun Sortuk agintzen du?

Hori ez da egia, sentsibiltate desberdinak daude eta bakoitzak bere ekarpena egiten du.

Bilera luze-luzeetan erabakitzen dira gure estrategia eta ildo politikoak. ■



“Koalizioak beti koalizio dira eta ikuspegi desberdinak izaten dituzte, baina denok gaude EH Bilduren proiektuarekin konprometituta eta horren alde lanean ari gara”.

UEMAren bidez aurkeztu genuen eskaeran beste behin ere abstenitu egin zen, baina egin zuen hitzaldia-gatik ikusi genuen agian zabaldu daitekeela euskarari buruzko ponentzia bat eta hor PSNk eman dezakeela urrats txikiren bat.

Ahal badu, lor dezala EAEk independentzia eta gero, nahi eta ahal badu, batuko zaio Nafarroa. Independentista askok hori pentsatzen du. Zuri zer datorkizu burura planteamendua entzutean?

“Legeak ez du debekatzen eremu ez euskaldunean D ereduan ikastea. Ez du bermatzen baina debekatu ere ez. Orduan, zergatik ez da zirrikitu hori erabiltzen?”

Gaia konplexua da eta batzuetan zaila izaten da oreka bilatzea dena eta ezer ez artean. Eztabaida hori beste esparru batzuetan kokatu behar dugu: egia da, bi estatu ditugu, hiru eremu administratibo eta bakoitzak bere erritmoak ditu, baina nik ez nuke ulertuko EAE independente bat Nafarroarik gabe. Beste esparruek bezala, Nafarroak bere etorkizuna erabakiko du, esaterako Euskal Herriko zein Estatu-ko gainerako lurraldeekin zein harreman mota nahi duen finkatzeko. Kataluniak bide bat hartu du, baina uste dut euskal herritarrek ez luketela halako bide bat ulertuko.

Horren arabera, teoriarik behintzat, Euskal Herriaren independentziak asko itxaron beharko luke, besteak beste Nafarroan independentismoa oraindik urria delako.

Bide bat egiten ari gara eta gizartearen gehien sustraitutako ikusmoldea erabakitzeko eskubidearena da. Hori da bultzatu behar duguna, eta

Egiturazko arazo baten datu gordinak

Lan merkatuan gazteek jasaten duten bazterkeria eta zapalketa zenbakitan ere neurtu daiteke. Ernai erakundeak bildutako datuen arabera, 15 eta 34 urte arteko lau gaztetik hiru pobreziaren langaren azpitik bizi da.

| URKO APAOLAZA AVILA |

EUSKAL HERRIKO LURRALDE guztiak kontuan hartuta gazteen egoera ekonomikoaren berri ematen duen argazkia atera du Ernaik eta datuak kezkarriak dira oso. Lan merkatuko segurtasun faltak prekarietatera eraman ditu gazteak, beltzean lan egitera, pobreziaren mugaren azpitik dauden soldatak


jasotzera eta baita sorterritik kanpora migratzera ere.

Argazkia ateratzeko hainbat iturri erabili ditu ezker abertzaleko gazte erakundeak, tartean Gaindegia, Emakunde, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Espainiako eta Frantziako estatistika institutuak eta Ikasle Abertzaleak-ek emandako informa-

zioa. Hala, *Gazteria, lana eta prekarietatea* txostena xehatuz gero, lotsarazteko moduko datuak ageri zaizkigu.


EAEko eta Nafarroako gazteen %72k baino gehiagok pobreziaren muga azpiko diru sarrerak dituzte. Irizpide estandarizatuen arabera, muga hori 937 eurotan dago egun-biztanleko BPGaren %37,5-.

Hego Euskal Herriko gazteen batz besteko diru-sarrerak



Iturria: CJE (Consejo de la Juventud de España)

Langabezia tasaren bilakaera adinaren arabera



Iturria: Gaindegia

Baina egoera okerragoa da, kontuan hartuz gero gazteen %65ek ez dutela inolako kontraturik eta bizirauteko bestelako diru sarreretara jotzen dutela: diru laguntza publikoetara, gurasoengana eta baita ezkutuko ekonomiara ere, izan haurrak eta zaharrak zaintzen, tabernan zerbitzari gisa edo garbiketak egiten. Batez ere emakumeak dira lan erreproduktiboaren eremu ikusezinean dabiltzanak.

Kontratuak dutenen artean ere baldintza prekarioak dira nagusi; horren adierazgarri dira Espainiako lan erreformak ekarri dituen “formazio kontratuak”. Ernairen esanetan gazteen %2k kontratu mota horrekin egiten du lan, hau da, hilean 500 euroren truke 33 urte izan arte, eta gizarte segurantzaren kotizatu gabe. Bestalde, kontratuen %95,5 aldi baterakoak dira.

Langabetuen zakua

2007an, 15-24 urte arteko gazteen %16,1 zegoen langabezia eta 25-34 urte artekoen artean %6,5 baino ez. Bost urte geroago, %39,3 eta %18,6 daude egoera horretan, hurrenez hurren. Langabeziak gogor jo du gazteen artean, hiru-koiztu egin da ia.

Langabetuen zakuan begiratzuz gero, gazteak dira nagusi, paroa dauden artean %58,5 gazteak baitira, emakumeak gizonak baino gehiago. Eskualdeka diferentzia nabarmenak daude ordea; Nafarroako hegoaldea eta Bizkaiko mendealdeak dira gaztigatuenak. Aldiz, Nafarroa Beherea barrualdean, Zuberoan, nafar Pirinioetan eta Arabako zenbait tokitan langabezia tasa oso baxua da gazteen artean. Hori fenomeno baten ondorio da: emigrazioa.

Azken hamarkadetan lurralde horiek jasaten ari diren populazio odolusteak gazteen egiturazko migrazioarekin du zerikusia: lan faltan, gazteek sistematikoki alde egiten dute. Ipar Euskal Herrian “desertizazioa” gertatzen ari dela salatu du Ernaik eta hezkuntzarekin ere lotu du hori. Tokiko eskaintzarik ez dagoenez, goi mailako ikasketak egitera Pau, Bordele edo Okzitaniako Tolosara joaten dira eta asko ez dira itzultzen.

Beren kabuz lan egitea, gazteek ikusten ez duten aukera

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIAK EAEko gazteen ekintzaitzaz berrikitan kaleratutako ikerketa batek larritzeko moduko ondorioak utzi ditu. Hauek dira 2013ko apirilean egindako telefono bidezko inkestaren emaitza nagusienak:



- %61,5ek ez dute inoiz pentsatu negozio bat euren kabuz jartzea.
- %27,1ek diote pentsatzen ari direla negozio bat jartzea baina oraingoz ez dutela pausorik eman norabide horretan.
- %3,5ek negozioa jartzeko ideia alboratu dute pausorik eman gabe.
- %8,1ek “esperientzia ekintzailea” izan dute.

2010ean egindako beste ikerketa batekin alderatuta, gazteek autoenpleguaren aukera gero eta hurrunago ikusten dutela ondorioztatu daiteke. Espainiako lan erreformak lan baldintzak prekarizatu eta enpresari langileria kontrolatzeko eskumen gehiago eman dien arren, nor bere kabuz lan egiteko gogoia %26,3tik %20,2ra jaitsi da. Hau da, independenteago izan eta erabakiak hartzeko nahiari, segurtasun eta egonkortasunik ez izatearen beldurra gailentzen zaio.

2012an 22.300 gaztek alde egin zuten Euskal Herritik. “Burmuinen ihesaldi” baten aurrean ote gaude? Nabarduraz josi beharreko galdera da hori. Euskal Herriko gazteak akademikoki ondo prestatuta daude

gestiorako zailtasunak eta ziurgabetasuna sortzen ditu maiz”.

Euren kabuz lanean hasteko beldurra hedatzen ari da. Inkestek erakusten dute autoenpleguaren aukeraren pentsatu ere egin ez duten gazteen portzentajea igo egin dela (ikusi koadroa).

Gauza bera gertatzen ari da emantzipazioarekin. Gurasoen etxetik ez joateko arrazoiaren artean etxebizitzaren prezioa (%83), lan egonkor falta (%81) eta soldata baxua izatea (%76) dira nagusienak. Baina alarma piztu duen ondorioetako bat

hau da Ernairen esanetan: gero eta gutxiago dira emantzipatzeko aukera planteatzen duten gazteak.

Ernaik, txostenean, datuak mahai gainean jartzeaz gain bide alternatiboak izan daitezkeenak ere plazaratu ditu prekarietateari aurre egiteko, “herri presioa eta praktika burujabea” garatzea, besteak beste. Maiatzaren 3an manifestazioa antolatu du Bilbon. ■



Langabetuen zakuan gazteak dira nagusi, paroa dauden %58,5 gazteak baitira, emakumeak gizonak baino gehiago

—%43,7k goi mailako ikasketak dauzka, Europako batz besteko %27,7ren aldean—, baina prestakuntza hori bideratuta dago enpresa eredu zehatz batera, multinazionalen ordezkatzaren duten horretara: “Eguneroko beharrei dagokien prestakuntza eskasa da —ondorioztatu du Ernaik txostenean—, taldeak antolatzen eta koordinatzen jakitea, oinarritzeko lanak... Horrek proiektu propioak martxan jartzeko eta auto-

ANDRÁS KORNAIREN IKERLANA

Heriotza zigorra interneten erabiltzen ez diren hizkuntzentzat

Munduko hizkuntzen %5 soilik erabiltzen da interneten, András Kornai hizkuntzalariak egindako ikerketa baten arabera, eta horrek gainerako %95 heriotzara kondenatuko du. Sarraski digitaletik bizirik aterako diren hizkuntza nagusien artean, ordea, bada salbuespenik; zenbait hizkuntza gutxituren bizi itxaropena hobetu egin baita jauzi digitala egiten asmatuta.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

HIZKUNTZAK izaki bizidunak bailiran aztertu izan dira Johann Gottfried von Herder (1744-1803) filosofo alemaniarrek metafora biologiko hori erabili zuenetik. Hainbat hizkuntzalari konparaketa horren aurkakoak izan arren, meta-

fora biologikoak onarpen zabala lortu du zenbait esparrutan, hala nola hizkuntzak nola desagertzen diren aztertze edo hizkuntza politikak diseinatzeko. Hizkuntzek, izaki bizidunen espezieak bezala, eboluzionatu egiten dute, indar-

tsuenak zabaltzen egiten dira eta horrek desagertzera daramatza hizkuntza ahulenak. Egokitu ala hil.

Internetek ataka horretan jarri ditu munduko hizkuntzak: sarera egokitzen ez direnak hil egingo dira. Horixe da behintzat András



JASON STRAZIUSO / AP PHOTO

Interneteko konexioa urria den eremuetan, Saharaz azpiko Afrikan esaterako, hizkuntzek ez dute etorkizunik, Kornairen ikerlanaren arabera.

Norvegiarrek Nynorsk aldaera hil dute digitalki

NORVEGIAN interneteko konexioa ez da arazoa. 2012an interneteko erabiltzaileen portzentajea lehen postua lortu zuen %96,9ari esker (munduko batez bestekoa %34,3koa zen duela bi urte). Eta hala ere András Kornai ikerketaren adibide garbiena, “laborategiko lagina ia”, herrialde horretan topatu du.

Norvegiar gobernuak norvegiararen bi aldaera onartzen ditu ofizialki: Bokmål eta Nynorsk. Hitzun kopuruan lehena aspaldi nagusitu zitzaion bigarrenari. Nynorsk aldaera biztanleen %10-15ek hitz egi-

ten dute oraindik, 500.000-750.000 hitzunek. Eta hori nahiko da Hizkuntza Aniztasunerako Itunak arriskuan dauden hizkuntzen zerrendatik kanpo uzteko. Baina Kornairen azterketak agerian utzi du Nynorsk hitzunek oso gutxi erabiltzen dutela aldaera online. Kornairen hitzetan, “hizkuntza politika ofiziala Nynorsk bultzatzeko ahalegin orekatua egiten ari den arren, norvegiarrek, blogen eta txioen bidez, dagoeneko bozkatu dute aro digitalean soilik Bokmål aldaeraren eskutik sartu nahi dutela”.



Kornai (Budapest, 1957) hizkuntzalari eta matematikari hungariar burutu duen ikerketaren abiapuntua. Lanaren emaitza *Plus One* aldizkari zientifikoan argitaratu du *Digital Language Death* (Hizkuntzen heriotza digitala) izenburupean.

Hizkuntzen agonia hiru fase-tan banatu ohi dute hizkuntzalariak: lehenik, hitzunek hizkuntza eremu praktikoetan erabiltzeari uzten diote apurka, esaterako, merkataritzan; ondoren, hitzun gazteenek hizkuntza erabiltzeko interesa galtzen dute; azkenik, hurrengo belaunaldiak ez du hizkuntza erabiltzen, eta hil egiten da. Kornairen arabera, internetek bi lehen faseak bultzatzen eta bizkortzen ditu, eta horrek ezinbestean azken fasera daramatza hizkuntzak, heriotzara.

Ikerketaren oinarri, Kornai galdera bat ipini zuen mahai gainean: zenbat hizkuntza erabiltzen dira interneten? Eta, beraz, zenbat ez? Edo beste modu batera esanda: zenbat hizkuntza salbatuko dira? Eta internetek zenbat kondenatuko ditu hiltzera? Ikerleak argitzen du ez dela gauza bera hizkuntza bat interneten egotea eta hizkuntza hori sarean erabiltzea. Datu base eskerga izanik, hizkuntza gehienak interneten egon badaude, sanskrito- zko edo latinezko testuak, adibidez, liburutegietan gordetzen diren moduan, baina egote hutsak ez die bizirautea bermatzen. Beraz, Kornai interneten aktiboki zer hizkun-

tza erabiltzen diren jakin behar zuen ikerketa burutzeko. Horretarako, erabiltzaile gehien dituzten guneetan hizkuntza bakoitzeko hitz erabilienak arakatzeko dituen programa bat diseinatu eta aplikatu du. Horrez gain, sistema eragileen hizkuntza aukerak, zuzentzaile automatikoak eta halako tresnak ere aztertu ditu. Azkenik, Wikipediari garrantzi berezia eman dio, haren ustez entziklopedia hizkuntzen osasun digitalaren erakusle garbiena delako: “Sarean gora egiten duten hizkuntza guztiek Wikipedia sortzeko beharra dute”.

Kornai lortu dituen emaitzak hizkuntzen osasuna aztertzeaz arduratzen diren erakundeen aurreikuspenak baino ezkorragoak dira, askoz ezkorragoak. UNESCOren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasaren* arabera, hizkuntzen %17 hilzorian daude eta beste %20 mehatxatuta. Hizkuntza Aniztasunerako Itunak ere antzeko portzentajeak erabiltzen ditu: %40 arris-

kuan daude. “Horrek gainerako %60 sasoi onean daudela pentsatzera bultzatzen gaitzake, baina gure ikerlanaren emaitzen ondorioak oso bestelakoak dira”, dio hizkuntzalari hungariarrek. Haren arabera, munduko 7.776 hizkuntzen %95 baino gehiago ez dira interneten aktiboki erabiltzen. Portzentajea positiboki biribildu du, gainera; bizirik iraungo duten hizkuntzen arriskuaren portzentajea ez da inolaz ere %5era iristen. Emaitzen arabera 170 hizkuntzak (%2) interneten tren hartu dute, eta itxaropena egon liteke “mugan” dauden beste 140 (%1,7) hizkuntzarentzat.

Jakina, interneteko konexioa urria den eremuetan, nagusiki Saharaz azpiko Afrikan eta Asiako nahiz Hego Amerikako hainbat lurraldetan, hizkuntzek ez dute bizi itxaropenik, ikerlanaren arabera. Baina konexio zabalak ere ez du bizirau-



.....
Wikipedia
10
lat dzielenia się
sumą ludzkiej
wiedzy



DAVID PETERS

Wikipediaren 10. urteurrena ospatzeko diseinatutako irudia, testua polonieraz duena. András Kornairentzat Wikipedia hizkuntzek sarean duten osasunaren adierazle garbientakoa da.

pena bermatzen; horren adibide garbiena Norwegian gertatzen ari dena da, aurreko orrialdeko koa droan azaldu dugunez.

Gainera, Kornaik nabarmentzen du trena pasa dela, hartu ez dutenek atzera egiterik ez dutela, ahaleginak alferrikakoak direla. “Heriotza masibo hau ez da politika bikainekin ekidin edo arindu daitekeen etorkizuneko kontua; kaltea egina dago”.

Wikipedia adierazle garbitzat jotzen duen arren, horrek ere ez du bizirauteko txartela automatikoki ematen. Alde positiboan Viquipedia aipatzen du, katalanezko Wikipedia; hamar milioi hiztun dituen hizkuntzak 15. Wikipedia handiena du eta 1.600 editore aktibo. Baina hainbat Wikipedia gutxi batzuen burugogorkeriaz sortzen eta mantentzen direla dio eta klingonezko Wikipediaren adibidea ematen du: Star Trek unibertsoan sortutako fikziozko hizkuntzak badu Wikipedia, baina ez du ia sarrerarik edo erabiltzailerik. Wikipediak inkubagailu moduko proiektua du abian. Gaur egun 287 hizkuntzatan dago kontsultagarri entziklopedia digitala, eta asmoa beste hainbestetan abian jartzea da. Kornairen ustez, ekimenak badu

alde positiboa, erronka digitalari erantzuteko ahaleginean ari diren hizkuntza gutxituetan aktibismoa ezinbestekoa delako, baina, bestetik, ataka gaingitzeko aukerak urriak dira; gehienez ere inkubagailuan dauden hogeitaz Wikipediak egingo dute aurrera.

“Heriotza masibo hau ez da politika bikainekin ekidin edo arindu daitekeen etorkizuneko kontua; kaltea egina dago”

András Kornai, ikerlaria

Zalantzarik ez dago hiztun kopurua eragile garrantzitsua dela, baina internetek datu horien eragina irauli dezake. Adibidez, Torino inguruan (Italia), 2-3 milioi pertsonen piamontera hitz egiten dute oraindik, baina interneten ez da ia erabiltzen. Feroerak, aldiz, 50.000 hiztun baino gutxiago ditu, baina kalitate handiko Wikipedia bizia. Kornairen arabera, feroerak bizirauteko aukera handiagoak dauzka (eta, hala ere, gutxi).

Hizkuntza gutxituek hainbat bitarteko izan eta hainbat baldintza bete behar dituzte apokalipsi digita-

la gaingitzeko: hainbat dialekto edo aldaera dituzten hizkuntzetan, koine hizkuntza edo hizkuntza batua sortzea; estandar hori indartuko duen argitaratze egitura egonkorra izatea; hezkuntzan ahalegin berezia egitea hainbat tresna garatuko dituzten hizkuntzalariak eta informatikariak trebatzeko, esaterako, zuzentzaile eta itzultzaile automatikoak. “Horren adibiderik garbiena euskara da”, dio Kornaik, “baina halako arrakasta berriro gertatzea ia ezinezkoa da”. Batetik, gurean bitarteko eta baldintza horiek lortzeko ahaleginak aro digitalaren aurretik abiatu ziren. Bestetik, ahalegin ekonomiko handia eskatu zuten, eta ekonomia kaskarragoetan, denborarik gabe, etorkizuna iluna da.

Baikor izanda, Errusia ipar-mendebaldean hitz egiten den komi hizkuntzak euskararen bidea har dezakeela uste du Kornaik. Komierak bi dialekto ditu: Permyak (94.000 hiztun) eta Zyrian (293.000). Biek hainbat aldaera dituztela aintzat hartuta, hizkuntza batua sortu beharko litzateke; dagoeneko unibertsitate bat badute eta, petrolioari esker, baita egoera ekonomiko aproposa ere.

Hizkuntzalariak 100 urteko epea erabili ohi dute hizkuntza batek bizirik iraungo ote duen aurreikusteko. Aurreikuspenen arabera, munduko 7.000tik gora hizkuntzetatik 2.500ek gutxienez beste mende bateko bizitza izango dute, zentzu klasikoan. Baina internetek aurreikuspen eredu hori hautsi du, eta ikerlan honen arabera, hamar aldiz gutxiago, 250 inguru, atera daitezke bizirik XXI. mendetik. “Iraultza neolitikoaren azken fasearen lekuko gara. Egungo nekazari urbanoak plano digitalera aldatzen ari dira, ehiztari-biltzaileak eta artzain nomadak atzean utzita”. ■




Ezagutzak 14,5 puntu egin du gora, etxeko erabilerak berriz puntu bat behera


V. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAK haladio, 2011ko Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuan bildutako datuek ez dute ezustekorik eman; bagenekien euskararen ezagutza etengabe gora egiten ari dela, eta eremu informaletan, erabilerak aurrera baino atzera egiteari ekin diola.

Alderatzen hasita, ezagutza emandako urratsak esanguratsuak dira. Gaur egun herritarren %36,4k badaki ongi euskaraz, eta duela 30 urte %22k. Egun, euskaraz batere ez dakiena %44,3 da eta duela 30 urte %65,9 inguru. 20 urtez azpikoak kontuan hartuta, %70 baino gehiago dira euskaldunak. Duela 30 urte ez ziren %20ra iristen. Adin guztietakoak aintzat hartuta, ezagutza igoera 14,5 puntukoa izan da.

Puntu bat behera egin duena erabilerak da, ez erabilerak orokorra, etxekoa baizik. Duela 20 urte gaur egun baino etxe gehiago ziren kide



2011ko datuen arabera, euskararen arrastorik ez dutenak populazioaren %44,3 dira. Aldiz, etxeko erabilerari dagokionez, %77,1ek egiten du gaztelaniaz.



guztiak erdaldunak zituztenak. Hala ere, orduan etxeko euskararen erabilera %21,8koa zen eta gaur egun %20,8koa da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako balorazioaren arabera, bi gauza adierazten ditu horrek: batetik, gaitasunean izandako hazkunde jarraituak ez duela etxeko erabileran hazkundarik ekarri, eta bestetik, gaurko eus-

kaldunek ez dutela duela 20 urtekoek adina euskara erabiltzen etxean.

Erabilerak orokorrean ez du behera egin, 7 puntu gora baizik. Azken urteotako joera nabari da: eremu informaletan mantendu ezin dabil erabilerak, eta aldiz, eremu formalean (udaletxeetan, osasun zerbitzuetan, lan munduan...) egin du gora.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Beste nekazaritza garapen eredu baten alde

EUSKAL HERRIKO LEHEN SEKTOREA, mundu osokoa bezala, bidegurutze baten aurrean dago eta ez badira erabaki egokiak hartzen desagertzeko zorian egon liteke. Neoliberalismoak, hau da, kapitalismo tradizionalak eta ekonomiaren globalizazioak mundua merkantzia bihurtu dute. Baserritar mundua desagertzen ari da, nekazaritza industrialak gaina hartu diolako. Hor koka daitezke labore transgenikoak eta elikagaiak sortzeko lurri milioika hektarea kentzen dizkieten agro-erregaiak, besteak beste. Bankuei, multinazionaliei eta nekazaritza industriari baino mesede egiten ez dien ereduak da eta kalte handiak eragiten ditu ingurumenean.

Testuinguru horretan sortu da Nirea egitasmoa, Gasteizko Gobernuaren, Hazi fundazio publikoaren eta eragile sozial nahiz sindikatuen eskutik. Etorkizunean landaren eta hiriaren arteko oinarritzko lotura berreskuratzeko egitasmoa da, herritarrek konpromisoa har dezaten euren kontsumo ohituretan lehen sektoreko bertako produktuak kontuan hartzeko. EHNE-Bizkaiak eskatu du akordioa edukiz betetzeko

eta horretarako beste nekazaritza garapen eredu bat behar dela uste du, sektorea mantentzen dutenen mesedetan. Hain justu, apirilaren 17an nekazarien borrokaren nazioarteko eguna da, “denon ondarearen eta gure lurraldeen defentsarako erresistentziaren” alde. Egun hori antolatu dutenek –tartean Mundubat– kapitalismoaren kontra mobilizatzeko eskatu dute, tokian tokiko merkatuak erreskatatu eta indartzeko: “Zubiak eraiki behar dira landa eta hiri eremuen artean, herrietan bizi garenon eta lurra landu nahi duten jendeen artean; nekazaritzara itzultzeko prozesuak bultzatu behar dira”.

Ea Nirea egitasmoa Eusko Jaurlaritzaren propagandatik harago doan eta beste nekazaritza garapen baten aldeko apustua egiten duen, egungo eredu produktibista aldatu behar bada ere. Horretarako neurriak hartu eta diru-partidak bideratu behar dira.

Juan Mari Arregi



Catastrophe bonds, hondamendiei sosak ateratzeko

Klima zenbat eta eroago, orduan eta beroago finantzetako marrazoen buruak. Aprobetxatuz administrazio publikoek gero eta diru-sarrera gutxiago dauzkatela eta herritarren beharrak asebetetzeko ahalmen urriagoa, naturaren gorabeheren inguruan apustu egitea da espekulazio atal berria. Katastrofeak bezala eguraldia aseguratzen estakuruz.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MEXIKON HONDAMENDIAK URRI EZ direnez (lurrikarak, urakanak, luitziak, sumendien tartekako haserrealdia...), bertako gobernuak 1996an *Fondo de desastres naturales* (Fonden) sortu zuen, biktimen egoera dirulaguntza publikoz arindu ahal izateko. Baina agintariek aurreikusi bazuten 50 milioi dolarrekin zerbait egingo zutela, 2005erako Mexikoko Gobernu Federalak gastatuak zituen 800 milioi baino gehiago.

Orduan azaldu zen mirarizko soluzioarekin Munduko Bankua, mahai berean Mexikoko Finantza ministroaren inguruan bilduz arazoa konpondu zezaketen jende serioak: Goldman Sachs bankua, Swiss Re Capital Markets eta Munich Re berraseguru etxeak, Cadwalader, Wickershan & Taft eta White & Case abokatu bufete ospe handikoak. Arriskuak kalkulatzeko gertakizun posibleak aurreikusten dituzten (*modelisation* frantsesez, *modelización* espainolez) agentzietako bat ere bertan zen, AIR.

Agentzia honek bi eredu sortu zituen, bata lurrikarentzako, bestea hurakanentzako. Kalkulu horien gainean sortu zuten *catastrophe bond*—finantzetako jendeak *cat bond* deitua— Mexikoren beharren neurria, saltzaileen esanetan. Paradisu fiskalaren artean paradigmatisikoak diren Kaiman uharteetan erregistratu

zuten *cat bond* berria eta merkatuan salgai jarri, banku nagusiek antolatutako promozioetan.

Hondamendi batek Mexiko zafrazten duen aldi oro, AIR agentziak erabakitzen du ea *cat bond* horren baldintzen arabera gobernuak eskubiderik baduen ala ez kalte-ordainik jasotzeko. Hau da, apustu bat bailitzan, hondamendibonook berekin daramatzate gutxieneko eta gehieneko mugak: lurrikara edo urakana gertatuz gero, halako larritasuna baino gutxiagokoa ez da ordainduko, baina gehieneko larritasun mailatik gorakoa gertatuz gero ere ez, tarteko arriskuak dira aseguratutakoak.

2010ean terremotoak suntsitu zuen Baja Californiako estatua, baina epizentroa urrunago Amerikako Estatu Batuetan egon omenenez, bonoen kalte-ordainik ez zuen jaso Mexikoko gobernuak. Hori bai, bonoak salduta zeudenez, gobernuak segitu behar zuen interesak pagatzen... eta herritarrei laguntzak bere sakela publikotik luzatzen.

Handik laster Tamaulipas estatua astindu zuen urakanak. Baina honen larritasuna ez zenez iristen bonoen kontratuan aipatu gutxienera, berriro sosik ikusi gabe geratu ziren Mexikoko agintariak. Eta segi interesak pagatzen.

New York Daily Newsek Interneten daukan argazki honetan, Filipinetako herrixka zehaztu gabea, *Haiyan* tifoia beste asko legez suntsitu ostean, 2013ko azaroan. Zelaian herritarrek "Janaria behar dugu. Lagun gaitzazue..." idatzi dute. 7.000 heriotza eragin zituen eta 1.500 milioi dolarreko kalteak. Hiru hilabete beranduago, Munich Re eta Willis Re aseguru etxe pribatuak bi ordezkari, Nazio Batuen Erakundeak hondamendietarako daukan bulegoko funtzionarioek lagunduta, aseguru berri bat aurkeztu zieten Filipinetako parlamentariari: klimak eragindako hondamendien kalte-ordainetarako *Philippines Risk and Insurance Scheme for Municipalities*. Estatuak babesten dituen bono berriaren primak udalek pagatu behar dizkiete inbertsiogile pribatuei, hondamendia gertatzekotan funtsak bono horiek kapitalizatua dutena itzuliko die udalei, baina txikizioa handiegia (edo txikiegia) baldin bada, deus ez.

Adibide hau aipatu du Erwann Michel-Kerjanek 2011n plazaratutako "*Catastrophe financing for governments: Learning from de 2009-2012 Multicat Program in Mexico*" liburuan. Alegia, klimaren aldaketaren ondorioak gero eta nabarmenagoak diren garaiotan, naturak eragindako hondamendien inguruan aseguru etxe erraldoiek negozio lerro berri izugarria antolatu dutela... beren zergekin herritarrek pagatzen dutena.

Ingurumenezko hipotekak

Razmig Keucheyan soziologoak berrikitan espekulaziozko produktu berrien xehetasun asko eskaini berri ditu *Le Monde Diplomatique* aldizkarian "*Catastrophes climatiques cotées en Bourse. Quand la finance se branche sur la nature*" artikuluan. Zabalago landu du gaia martxoan atera duen "*La nature est un champ de bataille*" liburu berrian.

"Mende askotan zehar—idatzi du Keucheyanek—Lurra sistema ekonomikoari merke eskaini dizkio lehengai eta baliabideak. Ekosistemak irensten zituen industriak eragindako hondakinak. Baina orain gauzak zaildu egin dira. Lehengaiak eta hondakinen kudeaketa garestitzeaz gain, ugaritu eta larriagotu egin dira hondamendi naturalak, aseguruen koste orokorra handituz. Honek berekin dakar industriaren



etekinak murriztea. Horrela, krisi ekologikoa ez da bakarrik ondorioa, kapitalismoaren krisi baten eragile ere bada”.

Hondamendiak garbien dirutan neurtzen dira. Swiss Re berraseguru etxeak –aseguru konpainiak segurtatzen dituzte berraseguruek– *Sigma* aldizkari berezitan eskanitzen ditu munduko katastrofeen estatistikak. Orain arteko garestiena 2005ean New Orleans astindu zuen *Katrina* hurakana izan da: 75.000 milioi dolar, 150.000 aseguruik gabeko kalteak gehituz gero. Fukushima-ari 35.000 milioi kalkulatu dizkiote, AEBetako *Andrews* urakanari 25.000 milioi, 2001eko irailaren 11ko atentatuei 24.000... 2003ko bero lamada izugarriak Frantziari

2.000 milioi dolarreko kalteak eragin zizkion.

Izan dira, noski, odoletan askoz garestiago atera diren hondamendiak. 1970ean Bhola zikloiak gaurko Bangladeshen eta Indian 300.000 gizaki hil zituen. 2010ean Haitiko lurrikarak 250.000 jende. Baina portzioan herrialde txiroetakoak merkeak dira: hauetan ondasunen %3 egon daiteke aseguratura, herrialde aberats batean %40.

1994an entzun zen lehenbizikoz *catastrophe bond* produktua, AEBek *Andrews* ekaitza nozitu eta laster. Geroztik 250 gehiago merkaturatu omen dira. Burtsan leku berezia daukatenez, Standar & Poor, Fitch eta Moody'sek ezarritako nota jasotzen dute. Katastrofeen aurreikus-

pena *modelizatzen* duten agentzia berrien –hauek ere pribatuak– esku uzten dute ordaindu beharrekoa finkatzeko irizpidea.

Neoliberalismoaren poderioz mundu osoko estatuak diruz estu dabilenez, gero eta sarriagotan jazotzen diren hondamendiei aurre egiteko gobernuek bono hauetara jotzen dute. Horra zer diren *cat bond* subiranoak, zor publiko berria. Horrelakoa da hasieran aipatu Mexikokoa, baina munduan beste askok ere badaukate, *takaful* asurantzia islamikoa erabiltzen dutenak barne, Indonesia esaterako.

Baina naturaren ezustekoak gehiago direnez, hari bereko bonoak anitz dira. *Weather derivative* direlakoak egin behar duen eguraldiari buruzko apustuak dira. Ez du zertan izan beharrik hondamendia, izan liteke kontzertu erraldoi batentzako asegurua eguraldi txarragatik jendea falta dakiokelako, edo eguraldi hotzagatik –berdin negu epelegiagatik– gasaren prezioak jasan ditzakeen prezio aldetak direla eta.


Agro-industrian ezaguna da *growing degree days* indizea, neurtzen duena erein ondoren zenbat eguntan iritsiko den heldutasunera halako labore, izan gari edo artoa. Indize horren mende sinatzen dituzte aseguru itxurako *swap* espekulazio apustuak enpresa handiek.

Badira *species swap*ak ere: halako dortoka desagertzen bada aseguruak pagatuko du, bitartean estatuak. Ingurumenezko hipotekak ere bai: *environmental mortgages*. Espekulatzailerak ez dauka bihotzik. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Katalunia tartean, Ibarretxe Planari begira

ESPAINIAKO Diputatuen Kongresuak joan den astean katalanei luzatutako ezetzak ematen du aukera Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta EAJk iragan hamarkadan bultzatutako Estatutu Berriaz jarduteko. Espainiar ordezkariak orain katalanekin izandako jarrera baino askoz gogorragoa erakutsi zuten Ibarretxe lehendakariarekin 2005ean. Oraingoan, Kataluniako Legebiltzarrak erreferenduma egiteko eskaera luzatu zuen eta hortaz eztabaidatu zuten zazpi ordu. Orduan eztabaidarako aukera bera ere itxi egin zen. Nekez egin daiteke mesprezu handiagorik, nekez demokraziaren aurkakogorik, instituziotik instituziora eztabaida bera ukatzea baino.

Kontsultaren antolaketarekin aurrera jarraitu zuen Eusko Jaurlaritzak, baina Auzitegi Konstituzionalak debekatu zuenean, EAEn ez zen ezer gertatu, ez Jaurlaritzan, ez Eusko Legebiltzarrean, ez euskal gizartean. Estatutu Berria kontsulta faseraino iritsi zen ahuldearen erakusgarri argia izan zen hori. Agian testuinguruak eman dezake informazio gehiago. EAJ zatitua zen, bai Estatutu Berriaren inguruan eta, batez ere, berau indarrean jartzeko noraino jarraitu behar zen aurrera adosteko. Ezker abertzalearen egoera korapilatsua goa zen: lege kanpo eta 2006ko bake prozesuaren ondoren, barne eztabaida korapilatsuan murgildua. Ibarretxe Planari orain ematen dion garrantzia ikusita, ez da samurra ulertzea Batasunak orduan aurkako jarrera agertzea, nahiz eta bere hiru botok ahalbiderratu zuten Eusko Legebiltzarrean onartu izana. PPren eta

PSE-EEren oposizioa handia zen, kopuruz eta jardunez, eta gainera, ETA oraindik bere jardun armatuarekin ari zen. Testuinguruari luzatutako begirada honekin ondo baino hobeto uler liteke Estatutu Berriaren ekimenak aurrera ez jarraitu izana. Sostengu maila horrekin ez zen posible.

ZEIN AUKERA du orain mugimendu burujabezale katalanak? Estatuak erreferenduma egiteko bidea ukatzen badie, beren bidea egin beharko dute agindutako erreferenduma lege babesteko. Jadanik oso aurreratua duten

Ibarretxe Planari orain ematen dion garrantzia ikusita, ez da samurra ulertzea Batasunak orduan aurkako jarrera agertzea


Kontsulta Legea Aste Santu ostean hasiko dira lantzen Kataluniako Legebiltzarrean eta datorren irailerako prest izatea aurreikusten dute. Orduan luzatuko du erreferenduma egiteko dekretua Artur Masen Gobernuak. Horrekin batera, hauteskunde legea ere lantzen ari da, kontsulta behar bezala burutzeko gaur egun ez duen tresna hori ere behar du eta. Ondoren, Espainiako Gobernuak hala eskatuta, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utziko du eta pilota berriz katalanen aldean izango da.

Hor hasiko dira mugimendu subiranistaren une erabakigarriak, bi bideren artean erabaki beharko baitu: Espainiako legebiltzaren gainetik erreferenduma egin; edo Legebiltzara desegin eta hauteskundeak deitu azaroaren

9rako. Ez da erraza irudikatzea nola egin litekeen erreferenduma Espainiako Gobernuaren debekuaren gainetik, baina ekimen gisa erreferenduma garbia da. Hauteskundeak aurreratzearena korapilatu egin liteke, besteak beste alderdiek adostu behar dutelako nola aurkeztuko duten independentziaren ideia, edo guztiek elkarrekin edo bakoitzak bere programan. Erreferenduma egingo balitz, Madrilekiko desobedientzia aurreratu egingo litzateke eta bestela, talka hauteskunde ondorengorako utziko litzateke, hauetan subiranismoak argi irabaziz gero, ondorengo urratsa independentzia aldarrikatzea izango bailitzateke.

PILAR URBANO kazetari eskuindar valentziarrak joan den asteburuan iragarri zuen bere aurreikuspena *Nació Digital* emandako elkarrizketa batean: Espainiako armadak parte hartuko du. Ukraina nola dabilen ikusita, alabaina, Europak ez du samur ulertuko mugimendu baketsuen aurrean indarrarekin erantzutea. Are gutxiago hiru hilabete lehenago Eskoziak bere autodeterminazio erreferenduma egiteko aukera izango duenean. CUPeko parlamentari David Fernandezek Espainiako Gobernuak Generalitate desegin eta gestora bat jar dezakeela ere aipatzen zuen ARGIAN otsailean egindako elkarrizketan. Beren arteko adostasunak gotortzeko hilabeteak dituzte oinen aurrean alderdi subiranistek. Gizarte zibilak, bitartean, alderdiei indarra non dagoen erakutsiko die beste behin ere hemendik eta Diadarainoko hilabeteetan ■

ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzako otordua

Elxalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN


Donostiako Aquiriuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Txalok aurkeztutako "Hiru" antzezlan

5 lagunentzako bina sarrera
Maiatzak 10 larunbata - 22:00
Sutegi Auditoriumean

Usurbil GIPUZKOA

Jexux Artze Kultur Elkarte

4



Okatxu

komiki 1 opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2409. Argia)

HAMLET - EIBAR

- Maite Agirre Korta (Berriz)
- Igor Mendibe Garcia (Elgoibar)

HAMLET - ANDOAIN

- Fatima Gonzalez Egiluz (Donostia)
- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)

HAMLET - BIDART

- Leire Narbaiza Arizmendi (Eibar)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)

ALEX SARDUI Esan eta egin liburua

- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
- Galdakaoko Aek Euskategia (Galdakao)
- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)
- Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)

ILLIMANI liburua

- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Iñaki Osoro Otardui (Eibar)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



VI. Mikel Essery

BIDAIA KONTAKIZUN LEHIAKETA

VI Concurso de relatos de viaje Mikel Essery



Gehienez 6.000 hitz

Máximo 6.000 palabras



Epea: 2014ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 1era

Plazo: del 1 de Enero al 1 de Mayo de 2014



Sariak: nazioarteko bidaia bat + beste batzuk

Premios: un viaje internacional + otros más



Yemen, 1997
Mikel

Informazio gehiago · Más información

www.mikelmunduan.net